



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko ekainaren 9a

47. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (25. or.).
- Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (35. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 4an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak egindako Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Eguesibarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (4. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1. Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorra (4. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (5. or.).
 - IV.3. Udalaren 2009ko abenduaren 31ko finantza-egoera (5. or.).
 - IV.4. 2006ko txosteneko gomendioen jarraipena (5. or.).
- V. 2009ko eta 2008do kontu orokorraren laburpena (6. or.).
 - V.1 Aurrekontuaren betetze maila (6. or.).
 - V.2 Aurrekontu-emaizta (8. or.).
 - V.3 Diruzaintza-gerakinaren egoera (8. or.).
 - V.4. Ratioak (9. or.).
 - V.5. Udalaren egoera-balantzea (10. or.).
 - V.6. Udalaren irabazien eta galeren kontua (11. or.).

- VI. Iruzkina, ondorioztapenak eta gomendioak (12. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (12. or.).
 - VI.2. Langileak (13. or.).
 - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (14. or.).
 - VI.4. Inbertsioak (15. or.).
 - VI.5. Diru-sarrerak: (15. or.).
 - VI.6. Gorabeherak (16. or.).
 - VI.7. Hirigintza (16. or.).
 - VI.8. Andacelay, SL (17. or.).
 - VI.9. Gestión y Promoción Egüés 21, SA (19. or.).

I. Eranskina.- Ratioak (20. or.).

II. Eranskina: Andacelay, SLren egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua (21. or.).

Gehigarria: Gestión y promoción Egüés 21, saren egoera-balantze laburtua eta galeren eta irabazien kontu laburtua (23. or.).

I. SARRERA

2010erako bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak Eguesibarko Udalaren 2009ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Udalerrri horrek 53,57 km²-ko azalera du eta ondokoek osatzen dute: Altzuza, Ardanaz, Azpa, Badostain, Egues, Elkano, Elia, Ibiriku, Olatz, Sagaseta, Uztarroze, Gorraitz eta Sarrigurengo kontzejuek, eta Etxalaz, Amokain, Erantsus, Elizmendi eta Egulbatiko jaureriek.

2009ko urtarrilaren 1ean, 10.787 biztanle zituen; horietatik, ehuneko 80 Sarrigurenen eta Eguesen bizi dira.

Eguesibarko Udalak hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2010eko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak, 2009-12-31n
Udala	8.832.491	8.614.879	96

2004ko urrian, udalak Andacelay, SL udalaren hirigintza sozietatea sortu zuen, zeinaren bazkide bakarra udala baita. Sozietate horrek ehuneko 51ko partaidetza du 2005ean eraturiko Gestión y Promociones Egüés 21, SA sozietatean eta 2010eko martxoan eraturiko Gestión y Promociones Egüés 21-II, SL sozietatean.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak eta ibai-parkearen kudeaketakoak.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak ezarritako berezitasunekin.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- 9/2008 Errege Lege Dekretua, Toki-inbertsio-ko estatu-funts bat eta ekonomia nahiz enplegua dinamizatzeko estatu-funts berezi bat eratzen dituen eta haren finantziarioari aurre egiteko kreditu bereziak onesten dituen.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru Dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren 2009ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, kontu orokorrari, legezketasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarrenean, Eguesibarko Udalaren finantzen egoera-orri nagusiak. Seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta -kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera, bai eta Andacelay, SL udalaren hirigintza sozietatearen eta haren partaidetza duen sozietatearen azterketa bat ere.

Halaber, txosten honek bi eranskin ditu: bata, txostenean erabilitako ratio nagusien azalpenarekin; bestea, Andacelay, SL udalaren hirigintza sozietatearen kontuei buruzkoa.

Informazio modura, gehigarri bat jarri dugu, Sociedad Gestión y Promoción Egüés 21 SAren 2009ko abenduaren 31ko urteko kontuekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei eta Andacelay, S.L. udalaren hirigintza sozietateko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzaren-gatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearekin eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 21/1995 Foru Legearekin bat, Eguesibarko Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren erregularitasun-fiskalizazioa egin da.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

- Eguesibarko Udalaren 2009ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinenean, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio

eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Eguesibarko Udalak 2009an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Erroibarko Udalaren 2009ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Eguesibarko Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Honako osagaiak dauzka:

- Entitatearen kontua.
- Andacelay, SL hirigintza sozietatearen urteko kontuak –sozietatea toki entitatearena da oso-osorik–.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Finantzen egoera-orri nagusi gisa sartu dira:

- Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaizta eta entitatearen diruzaintza-gerakina.
- Entitatearen egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua.
- Andacelay, SL sozietatearen egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

Udalak ez ditu sartu kontu orokorraren eranskin gisa, 272/1998 Foru Dekretuaren 392. d) arauan ezarri bezala, ez toki entitateen kontu bateratua ez urteko kontuak ez Gestión y Promoción Egüés 21 S.A. sozietateari buruzko datuak ere, zeinaren ehuneko 51eko partaidetza baitu bere osotasunean udalaren kapitalaz osaturiko Andacelay S.L. sozietateak.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta ingurubarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika,

edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak ere; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolerako alderdi nagusiak ebaluatu dira.

Ez da egin Andacelay SL udal titulartasuneko sozietatearen urteko kontuen autoría, ez eta aipatu sozietatearen ehuneko 51ko partaidetza duen Gestión y Promoción Egüés SA sozietatearen kontuena ere; izan ere, horiei buruzko finantza-auditoriariko txosten bat egin dute kanpoko auditoreek, eta salbuespenik gabeko iritzia eman dute. Halere, berrikusi da bere jarduerako eragiketa nagusiak sektore publikoko entitatea izateagatik aplikatzekoak zaizkion legezko printzipioen arabera burutu dituen, bereziki kontratazio administratiboari eta udalak haien gain aplikatutako kontrolerako tresnei dagokienez.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Eguesibarko Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanetik hau da ateratzen dugun ondorioa:

IV.1. UDALAREN 2009KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren kontu orokorrak ez du ikuspegi osoa eskaintzen haren finantza-egoerari buruz; izan ere, ez ditu jasotzen udalaren eta Andacelay SL sozietatearen datuak, ez eta Gestión y Promoción Egüés 21 SA sozietatearen datuak ere (udalak dauka horren partaidetzarik handiena, Andacelay SLren bitartez).

Arestiko lerrokadan aipatutako salbuespenengatik izan ezik, udalaren 2009ko ekitaldiko Kontu Orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinengat, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, 2009ko abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta arauari jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezketasun printzipioari jarraituz garatu dela.

IV.3. UDALAREN 2009KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA

2009ko ekitaldirako behin betiko aurrekontua 9,8 milioi eurokoa da, aurrekontu aldaketen bidez 3 milioi euro igo baita (funtsean, inbertsio errealean kapituluari -2,5 milioi euro- eta horien finantzaketari dagozkie).

2009an aitorturiko betebeharrak 8,8 milioi eurokoak izan dira, eta aitorturiko eskubideak, berriz, 8,6 milioi eurokoak.

2008ko ekitaldiarekin alderatuta, gastuek ehuneko 4 egin dute behera, eta diru-sarrerek, berriz, ehuneko 28 egin dute gora. Operazio moten araberako azterketatik ondorioztatzen da gastu arruntak ehuneko 4 igo direla eta diru-sarrera arruntak, berriz, ehuneko 10. Gainontzeko aldaketak kapital-operazioei dagozkie.

Ekitaldia ixtean, aurrekontuko emaitza bateratu doituia 245.178 euroko defizita izan da. Emaitza hori 2008an ere izan zen defizitariora (741.605 euro).

Aurrezki gordina (diru-sarrera arruntak ken funtzionamendu gastuak), 2009an, positiboa izan zen (310.321 euro). 2008an, berriz, negatiboa izan zen (62.171 euro). Aurrezki garbia (aurrezki gordina ken finantza-zama) orobat hobetu da, 2008an 422.788 eurokoa izatetik 2009an 50.286 eurokoa izatera igaro baita.

Diruzaintzako gerakina, guztira 4,4 milioi eurokoa da (2008an 5 milioi eurokoa izan zen). Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurten duen adierazle positiboa izan zen: 3,7 milioi euro.

Epe luzeko zorra, 2009ko abenduaren 31n, 710.932 eurokoa zen (2008ko abenduaren 31n 1,1 milioi eurokoa zen).

Finantzen ikuspuntutik, udalaren egoeraren ezaugarria da diruzaintza-gerakin handia daukala, funtsean aurreko ekitaldietako hirigintza-jarduerak sortua. 2009ko ekitaldian, diru-sarrera arruntak

aski izan dira zerbitzuak emateko gastu arruntak finantzatzeko; kapitale-operazioen zati bat, aldiz, diruzaintza-gerakinarekin finantzatu dira, eta hortik heldu da diruzaintza-gerakina ehuneko 12 jaitsi izana. Etorkizunari begira, kontuan hartu beharko da populazio-hazkundeak aurrekontuan izan dezakeen eragina.

Finantza-egoeraren ikuspegi hori partziala da, udalaren kontuari buruzkoa delako soil-soilik. Udalaren datuak eta Andacelay, SLrenak batuz gero, ikuspegia osatuagoa izanen litzateke eta horretaz gain datu horiek hobetuko liriteke; izan ere, Andacelay, SLk 8,6 milioiko balantzea dauka "Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak" direla-eta, eta horrekin ari da finantzatzen zenbait inbertsio aipagarri, hala nola Sarrigurengo udal-bulegoen eraikina.

IV.4. 2006KO TXOSTENEN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Eguesibarko Udalari buruzko aurreko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldiari buruzkoa, 2009an argitaratu zen. Horri dagokionez adierazi behar dugu ondoko gomendikoak bete direla eta ezartze-fasean direla:

- *Kontuan hartu behar da Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ondoriozko diru-sarrerak ezin direla errepikarizat hartu; hori dela eta, beharrezkoa izanen da diru-sarrera eta gastu errepikariak aztertzea, gastu arruntaren egitura egokia zehazte aldera.*

- *Udal kapitaleko sozietateen kontratu jardueran nahitaez ezarri behar diren publikotasunaren eta lehiaren printzipio orokorrak errespetatzea.*

Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek, besteak beste:

- *Udalaren kontu orokorrean sartu behar dira, eranskin gisa, udalaren gehiengo partaidetza duen Gestión y Promoción Egüés 21 S.A. sozietateari buruzko datuak.*

- *Administrazio-kontratazioari buruzko araudia zorrozki betetzea, batez ere espedienteak formalizatzeari buruzko alderdi batzuei dagokienez.*

- *Hirigintza-plangintza modatu egin behar da Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legearen zehaztapenetara eta lurzorua udal ondareari buruzko zehaztapenak bete behar dira.*

V. 2009KO ETA 2008KO KONTU OROKORRAREN LABURPENA**V.1 AURREKONTUAREN BETETZE MAILA**

2009ko ekitaldia

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebehargarbiak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeke
Langileria-gastuak	3.544.150	18.100	3.562.250	3.531.622	99	3.463.558	68.064
Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.398.025	316.450	2.714.475	2.752.678	101	2.138.133	614.545
Transferentziak	490.940	167.410	658.350	581.507	88	530.099	51.408
Inbertsio errealak	21.800	2.466.136	2.487.936	1.601.128	64	1.456.050	145.078
Kapital-transferentziak	6.600	0	6.600	4.949	75	4.949	0
Finantza-pasiboak	361.000	0	361.000	360.607	100	360.607	0
Gastuak, guztira	6.822.515	2.968.096	9.790.611	8.832.491	90	7.953.396	879.095

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobratzeke
Zuzeneko zergak	2.116.110	0	2.116.110	2.515.444	119	2.316.314	199.130
Zeharkako zergak	1.279.000	0	1.279.000	1.063.717	83	568.461	495.256
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	957.435	0	957.435	1.125.931	118	982.273	143.658
Transferentzia arruntak	2.336.820	41.300	2.378.120	2.396.374	101	2.231.753	164.621
Ondare diru-sarrerak	133.150	0	133.150	74.662	56	70.265	4.397
Kapital-transferentziak	0	1.596.150	1.596.150	1.438.751	90	1.062.881	375.870
Finantza-pasiboak	0	1.330.646	1.330.646	0	0	0	0
Dirusarrerak, guztira	6.822.515	2.968.096	9.790.611	8.614.879	88	7.231.947	1.382.932

2008ko ekitaldia

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebehar garbiak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena
Langileria-gastuak	3.177.380	35.026	3.212.406	3.179.843	99	3.117.634	62.209
Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	2.817.200	54.081	2.871.281	2.836.870	99	2.296.472	540.398
Transferentziak	583.050	8.614	591.664	588.296	99	508.688	79.608
Inbertsio errealak	31.500	2.448.391	2.479.891	2.243.488	90	1.465.906	777.582
Kapital-transferentziak	18.500	-10.000	8.500	8.917	0	595	8.322
Finantza-pasiboak	361.000	0	361.000	360.607	0	360.607	0
Gastuak, guztira	6.988.630	2.536.112	9.524.742	9.218.021	97	7.749.902	1.468.119

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobratu gabe
Zuzeneko zergak	1.852.800	0	1.852.800	1.917.280	103	1.311.972	605.308
Zeharkako zergak	2.012.900	0	2.012.900	1.269.407	63	630.650	638.757
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.229.850	0	1.229.850	1.063.166	86	898.703	164.463
Transferentzia arruntak	1.788.580	16.472	1.805.052	2.101.282	116	2.026.756	74.526
Ondare diru-sarrerak	54.500	0	54.500	191.703	352	189.338	2.365
Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	2.500	0	2.500	0
Kapital-transferentziak	50.000	0	50.000	187.506	375	39.595	147.911
Finantza-pasiboak	0	2.519.640	2.519.640	0	0	0	0
Dirusarrerak, guztira	6.988.630	2.536.112	9.524.742	6.732.844	71	5.099.514	1.633.330

V.2 AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
+ Aitorturiko eskubide garbiak	8.614.879	6.732.844
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	-8.832.491	-9.218.021
= Aurrekontu-emaiza	-217.612	-2.485.177
DOITZEAK		
- Finantzaketaren desbideraketa positiboa	-653.213	0
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	0	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	625.647	1.743.572
= AURREKONTU EMAITZA DOITUA	-245.178	-741.605

V.3 DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
+ KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	2.245.550	3.183.775
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.382.932	1.633.330
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.276.132	822.336
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	628.482	1.535.617
+ Ordainketen itzulketak	0	0
- Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	-3.883	-2.904
(-) Diru-bilketa zaileko eskubideak	-1.038.113	-804.604
- ORDAINTZEKE DAUDEN BETEBEHARRAK	-1.199.281	-2.101.833
+ Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	-879.095	-1.468.119
+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	-44.229	-22.889
Diru-sarreraren itzulketak	-66.803	-71.985
+ Aplikatzeke dauden gastuak	496	482
- Aurrekontuz kanpoko gastuak	-209.650	-539.322
+ DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK	3.308.847	3.887.990
+ Finantzaketa-desbideraketa metatu negatiboak	0	0
= DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA	4.355.116	4.969.932
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	653.213	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	3.701.903	4.969.932

V.4. RATIOAK

ADIERAZLEA	2008	2009
Diru-sarreren betetze-maila	% 70,69	% 87,99
Gastuen betetze-maila	% 96,78	% 90,21
Kobrانتzen betetzea	% 75,74	% 83,95
Ordainketen betetzea	% 84,07	% 90,05
Zorpetze-maila	% 5,51	% 5,03
Zorpetze-muga	% -0,95	% 4,32
Zorpetze-ahalmena	% -6,46	% -0,70
Langile-indizea	% 34,50	% 39,98
Inbertsio-indizea	% 24,34	% 18,13
Diru-laguntzekiko menpekotasuna	% 33,99	% 44,52
Biztanle bakoitzeko diru-sarrerak	624	600
Biztanle bakoitzeko gastuak	855	615
Biztanle bakoitzeko diru-sarrera arruntak	607	499
Biztanle bakoitzeko gastu arruntak	612	478
Biztanle bakoitzeko tributu bidezko diru-sarrera	394	327
Biztanle bakoitzeko finantza-zama	33	25
Biztanle bakoitzeko zorra	99	49

V.5. UDALAREN EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA

Deskribapena	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
A IBILGETUA	47.541.529	46.466.971
1 Ibilgetu materiala	34.618.271	33.562.224
2 Ibilgetu ez-materiala	412.543	412.543
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	12.436.873	12.418.362
4 Bienes comunales	36.241	36.241
5 Inmovilizado financiero	37.601	37.601
C ZIRKULATZAILEA	6.596.890	8.001.149
8 Zordunak	3.287.546	3.991.283
9 Cuentas financieras	3.309.343	3.888.480
10 Aplikatzeke dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	121.386
AKTIBOA, GUZTIRA	54.138.419	54.468.120

PASIBOA

Deskribapena	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
A FUNTS BEREKIAK	52.223.827	51.243.548
1 Ondarea eta erreserbak	47.669.271	48.271.832
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	180.652	0
3 Kapital-dirulaguntzak	4.373.904	2.971.716
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	710.932	1.071.539
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	710.932	1.071.539
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	1.203.660	2.153.033
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.199.778	2.150.129
6 Aplikatzeke dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	3.882	2.904
PASIBOA, GUZTIRA	54.138.419	54.468.120

V.6. UDALAREN IRABAZIEN ETA GALEREN KONTUA.

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
AZALPENA	ZENBATEKOA 2009an	ZENBATEKOA 2008an	AZALPENA	ZENBATEKOA 2009an	ZENBATEKOA 2008an
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	727.749	708.200
61 Langileria-gastuak	3.629.351	3.282.671	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	421.933	478.351
62 Finantza-gastuak	0	0	72 Produktioari eta inportazioari loturiko tributuak	2.862.253	2.735.470
63 Tributuak	103	184	73 Zerga arruntak, errentaren eta ondasunaren arabera	327.378	272.348
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpo zerbitzuak	2.657.707	2.734.623	75. Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0
65 Gizarte prestazioak			76 Transferentzia arruntak	2.396.374	2.101.282
66. Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	389.530	178.869
67 Transferentzia arruntak	581.507	588.296	78 Bestelako dirusarrerak	87.474	68.318
68 Kapital transferentziak	47.471	8.916	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornidurak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	296.552	0	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	71.852
GUZTIRA	7.212.691	6.614.690	GUZTIRA	7.212.691	6.614.690

Ekitaldiko emaitzak

ZORRA			HARTZEKOA		
AZALPENA	ZENBATEKOA 2009an:	ZENBATEKOA 2008an	AZALPENA	ZENBATEKOA 2009an:	ZENBATEKOA 2008an
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	71.852	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	296.552	0
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	0	25.680	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	115.900	23.854	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	180.652	0	89 Galera garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	0	121.386
GUZTIRA	296.552	121.386	GUZTIRA	296.552	121.386

VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bete behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

VI.1.1. Aurrekontuaren eta Kontu Orokorraren alderdi orokorrak

2009ko ekitaldirako aurrekontua 2008ko azaroaren 21eko Osoko Bilkuran onetsi zuen udalak, eta 2009ko otsailaren 2an sartu zen indarrean, behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean.

Aurrekontu Orokorraren espedienteak ez du jasotzen 270/1998 Foru Dekretuan eranskinei buruz ezarritako dokumentazio guztia, ez eta,

zehazki, partaidetza osoko nahiz partaidetza handieneko merkataritza sozietateei buruzko informazioa ere.

Ez da jasota ageri aurrekontu-aldaketekin batera kontu-hartzaitzaren txostena doanik, aginduzkoa baita. Aldaketa gehienak inbertsioen kapitulari buruzkoak dira, zeina, 21.800 euroko hasierako kredituak izatetik 2.487.936 euroko behin betiko aurrekontua izatera igaro baita (kapital-transferentzien bidez eta diruzaintza-gerakinaren bidez finantzatzen dira).

2009ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan ez dira beti errespetatu kapituluetako atxikitze juridikoaren poltsak. Gastuen aurrekontuko 2. kapituluaren –"Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak"– aitorturiko betebeharrak behin betiko kredituek baino 38.203 euro gehiago egiten dute.

Udalaren 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioak ondoko datuak erakusten ditu, 2008koarekin alderatuz gero:

	2009	2008	Zorraren aldaketa 09/08
Aitorturiko betebeharrak	8.832.491	9.218.021	% -4
Likidaturiko eskubidak	8.614.879	6.732.844	% 28
Gastu arruntak (1etik 4ra)	6.865.807	6.605.009	% 4
Kapital gastuak (6tik 9ra)	1.966.684	2.613.012	% -25
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	7.176.128	6.542.838	% 10
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	1.438.751	190.006	% 657
Aurrekontu-emaizta doituia	-245.178	-741.605	% -67
Aurrezki gordina	310.321	-62.171	
Finantza-karga	360.607	360.607	
Aurrezpen garbia	-50.286	-422.778	
Zorpetze-maila (%)	% 5,03	% 5,51	
Zorpetze-muga (%)	% 4,32	% -0,95	
Zorpetze-ahalmena (%)	% -0,70	% -6,46	
Diruzaintza-gerakina, guztira	4.355.116	4.969.931	% -12
Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintza-gerakina	653.213	0	
Gerakina, baliabide atxikiek sortua	0	0	
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	3.701.903	4.969.931	% -26

Gastuen kapituluetan, langileria-gastuek aitorturiko gastu osoaren ehuneko 40 egiten dute, ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuek ehuneko 31, eta inbertsio errealek, berriz, ehuneko 18.

Informazio modura, bost zerbitzuren artean kontsumitzen dute⁽¹⁾ udalaren gastu arruntaren ehuneko 60: segurtasuna eta polizia, ehuneko 17; lorategiak, parkeak eta berdeguneak, ehuneko 14; oinarriko gizarte zerbitzua, ehuneko 12; musika eskola, ehuneko 10; eta haur eskolak, ehuneko 7.

(1) Toki entitateek herritarrei ematen dizkieten zerbitzu nagusien kostuak kalkulatzeko Toki Administrazioiko Departamentuak garaturiko aplikazio informatikotik eskuratutako datuen arabera.

Diru-sarrerei dagokienez, ehuneko 54 zuzeneko zergetatik, zeharkakoetatik eta bestelako diru-sarreretatik heldu dira, eta ehuneko 45, berriz, transferentzietatik.

Kontu Orokorraren eranskinak ez ditu jasotzen Gestión y Promoción Egüés 21, SA, SL sozietatearen urteko kontuak. Halaber, zorraren egoera-orriak ez du informaziorik jasotzen kapital osoa nahiz gehiena duen merkataritza sozietateen kreditu erakiteketi buruz.

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontu orokor bakarra onetsi behar da legedi indardunean ezarritako epeei eta edukiari jarraikiz.*
- *Aurrekontu-aldaketako espedientean erantsi behar da kontu-hartzaitzaren nahitaezko txostena.*
- *Kasuan kasuko aurrekontu-aldaketak izapidetu eta onetsi behar dira, aurrekontuko diru-esleipenak aski ez baldin badira.*
- *Kontu Orokorra osatzea, eta eranskin gisa sartzea entitate guztien informazio bateratua eta Gestión y Promoción Egüés 21, SA sozietateari buruzko datuak.*
- *Zorren egoera-orrian aurkeztea legez araututako informazioa udalaren partaidetza duten mer-*

kataritza-sozietateei buruz: Andazelay SL eta Gestión y Promoción Egüés 21 SA.

VI.1.2. Beste alderdi orokor batzuk

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorrak ezartzen du ezen, diru-laguntzak eman aurretik, toki-korporazioek aurrekontuaren betetze-oinarrien esparruan onetsi beharko dituztela diru-laguntzen ematea arautzen duten oinarriak, dela diru-laguntzei buruzko ordenantza orokor baten bitartez, dela diru-laguntzen modalitate bakoitzerako berariazko ordenantza baten bitartez.

Fiskalizazio lana egin den bitartean, gabeziak detektatu dira dokumentazioaren gaineko kontrolari, kudeaketari eta artxiboari dagokienez. Zenbait kasutan, ezin izan dugu egiaztatu kontratazio espedienteei, transferentzia arruntei eta beste arlo batzuei buruzko araudiaren arabera egon beharko litzatekeen dokumentazioa dagoela.

Azkenik, gogorarazi beharra dago Eguesibarrrek hirigintza-garapen handia izan duela azken urteotan, eta horrek eraikuntzari lotutako diru-sarrera handiak ekarri dituela, bai eta populazioa nabarmen igotzea ere; halatan, ondoko taulan ikus daitekeenez, populazioa bikoiztu egin da 2006tik 2009ra bitarte, eta horrek eragin handia izan dezake aurrekontuan:

urtea	2006	2007	2008	2009	2010
Populazioa	5.379	7.079	9.137	10.787	14.354
Aldaketa, 2006arekin alderatuta		% 32	% 70	% 101	% 167

Hona gure gomendioak:

- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onestea.*
- *Dokumentazioa kudeatzeko eta artxibatzeke prozedura eraginkorrak garatzea.*
- *Administrazioko alor bakoitzeko arduradunek ikuskatzea behar bezala betetzen dela espedienteak eta egin beharreko jarduketak direla-eta araudi indardunak eskatzen duen dokumentazioa.*
- *Udalak bizi izan duen populazio-igoera dela-eta, gaur egungo zerbiztuak ematearen*

ondorioz nahiz inbertsio berrien ondorioz aldaketa horrek izanen duen eragina balioestea.

VI.2. LANGILEAK

Langileen kapituluan aitorturiko betebeharrak 3.531.622 euro egiten dute; alegia, 2009ko ekitaldian sorrarazitako gastu guztien ehuneko 40 eta gastu arrunten ehuneko 51.

2008ko ekitaldiarekin alderatuta, igoera ehuneko 11 koa izan da. Hona, artikuluko ekonomikoaren araberrako banakapena:

	2009an aitorturiko betebeharrak	2008an aitorturiko betebeharrak	Aldaketa 09/08
10 Goi karguak	81.832	82.597	% -1
12 Langile funtzionarioak	1.085.670	1.013.476	% 7
13 Langile kontratudunak	1.300.693	1.167.317	% 11
16 Kuotak, prestazioak eta gizarte gastuak	1.063.427	916.454	% 16
Guztira	3.531.622	3.179.844	% 11

Udalaren plantilla organikoan lanpostuen ehuneko 45 inguru dago hutsik (ehuneko 38, Musika Eskolako lanpostu hutsak alboratu zitzaizten), eta horrek eragina du aldi baterako kontratazioen kopuruan.

2009ko ekitaldian ez da deialdirik egin lanpostuak modu zuzenean betetzeko. Nafarroako Gobernuak kudeatutako kontratazio prozesu baten bidez, hiru agente hautatu dira Udaltzaingorako.

2009ko ekitaldiko langileria-gastuen lagin bat aztertuta ikusi da, oro har, behar bezala betetzen dela araudi indarduna, behar bezala kontabilizatu-ta daudela, ordaindutako lansariak betetako lanposturako ezarritakoak direla eta egindako atxiki-penak zuzenak direla. Egiaztatu da ezen, azken urteotako plantilla organikoan, lanpostu gisa kalifikatu beharko litzatekeen mailako osagarri bat dutela esleiturik zenbait lanpostuk. Udalak badu

horren berri, eta, hortaz, aldatzeko asmoa dute, udalak egindako txostenaren arabera.

Hona gure gomendioak:

- *Aztertzea komenigarria ote den plantilla organiko lanpostu hutsak betetzeko behar diren deialdiak egitea.*

- *Plantilla organikoa egokitu behar da Langileen Estatutuan ezarritakora.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak 2.752.677,54 eurokoak izan dira 2009an; alegia, ekitaldiko gastu guztien ehuneko 31 eta gastu arrunten ehuneko 40. 2008. urtearen aldean, ehuneko 3 jaitsi dira. Hona banakapena:

	2008an aitorturiko betebeharrak	2008an aitorturiko betebeharrak	Zorraren aldaketa 09/08
Errentamenduak	72.430	78.344	% -8
Konponketak, mantentze lanak eta kontserbazioa	515.114	435.602	% 18
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	2.067.405	2.220.097	% -7
Zerbitzuaren ondoriozko kalte- ordainak	97.729	102.827	% -5
Guztira	2.752.678	2.836.870	% -3

Ekitaldian esleitutako ondoko espedientea aztertu da:

	Kontratu-mota	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)
Udalaren bulegoen garbiketa zerbitzua	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	114.840

Espediente horren azterketan ez dugu detektatu administrazio-kontratazioari buruzko araudiaren urraketarik. Kapitulu horretan erregistratutako gastuen lagin bat aztertuta egiaztatu dugu kasuko fakturen bidez justifikatzen direla gastuok eta behar bezala kontabilizatu direla; halere, zenbait gasturen kasuan ez da jasota ageri gastuaren zenbatekoaren araberrako kontratazio prozedura baliatu denik, hala nola ondoko kasuotan: aseguruak(40.330,97 euro), modulu-sistemen errentamendua (40.653,54 euro) edo bideen konponketalanak (51.101,79 euro).

Hona gure gomendioak:

- *Kontratazio prozedura egokia aplikatzea, kontratuaren izaeraren eta zenbatekoaren arabera.*

Kapitulu ekonomikoak	Mota	Esleipen-prozedura	Zenbatekoa (BEZa barne)
Sarrigurengo kirol hiriko harmaila eta aldageletako obren proiektua, zuzendaritza fakultatiboa eta segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	68.910
Olazko zeharbidearen bigarren fasearen urbanizazioa	Obrak	Negoziatua, publizitaterik gabea	231.884
Sarrigurengo kirol hiriaren lurzatiaren urbanizazioa, harmailak eta aldagelak	Obrak	Negoziatua, publizitatearekin	1.183.058

Egindako azterketan ez dugu detektatu, orohar, administrazio kontratazioari buruzko araudiaren urraketarik, nahiz eta lehenengo espedientean ezin izan den egiaztatu esleipenaren proposamen ziodunik, ez eta kontratazio atarian publizitatea egin izana ere.

Udalak egindako inbertsioak gorabehera, Andacelay, SL sozietateak, 2009an, 5.964.588 euroan esleitu ditu (BEZa barne) Sarrigurengo udal bulegoen eraikineko obrak, eta abian jarri du Sarrigurengo kirol hirian jolas- eta olgeta-igerilekuak eraikitzeke proiektuaren idazketa, obraren zuzendaritza eta obra bera esleitzeko prozedura (1.740.000 eruo, BEZa barne) (ikus VI.8 atala.)

2008ko azaroaren 5eko Osoko Bilkuraren erabaki bidez udalak Andacelay SL sozietateari esleitu zion lurzatian ari dira eraikitzen udal bulegoen eraikina. Sozietateak eskatu zuen esleipen hori egin zekion, helburuekin bat administrazio bulegoen eraikin bat, erabilera anitzekoa, sustatzeko eta kudeatzeko. Gure iritziz, udalari dagokio gisa horretako inbertsioen plangintza eta kudeaketa egitea.

Hona gure gomendioak:

VI.4. INBERTSIOAK

2009rako aurrekontuko inbertsioen kapituluaren betetze-maila ehuneko 64koa izan da (guztira, 1.601.128 euro). Gastuak ekitaldian aitorturiko betebeharren ehuneko 18 egiten du.

2008an erregistratutako inbertsioen aldean (2.243.488 eurokoak izan ziren), jaitsiera ehuneko 29koa izan da.

Udala Toki-inbertsioko Estatu-funtsari atxiki zaio, ondoko bi proiektuok egiteko: "Olazko zeharbidearen bigarren fasearen urbanizazioa" eta "Sarrigurengo kirol hiriaren lurzatiaren urbanizazioa, harmailak eta aldagelak", zeinetarako 1,3 milioi euroko finantzaketa eduki baitu.

Kapitulu horretako gastuen lagin bat eta ondoko kontratazio espedienteak aztertu dira:

- *Behar bezala bete behar da kontratatzeke espedienteak, araudiak ezarritako dokumentazio guztia jasota.*

- *Gure iritziz, udalak egin behar du obra garrantzitsuen kudeaketa eta plangintza –udal bulegoak, adibidez–.*

VI.5. DIRU-SARRERAK:

2009ko ekitaldian aitorturiko eskubideek 8.614.879 euro egin dute; horietako ehuneko 83 eragiketa arruntei dagozkie, eta gainontzekoa, ehuneko17, kapital-eragiketei.

Eragiketa arruntetan, zerga, tasa eta bestelako dirusarrerak diru-sarrerara guztien ehuneko 55 egiten dute, eta transferentziek, berriz, ehuneko 28.

Diru-sarreraren betetze-maila arrazoizkoa izan da kapitulu guztietan, eta zertxobait txikiagoa izan da zeharkako zergen kasuan (ehuneko 83), EIO-Zetik heldu den diru-bilketa txikiagoa izan delako. 2008ko ekitaldiaren aldean, aitorturiko eskubideek ehuneko 28 egin dute gora, Toki-inbertsioko estatu-funtsetik heldu diren diru-sarrerak direla-eta. Hona kapituluaren araberrako banakapena:

Diru-sarreraren kapitulua	2009an aitorturiko eskubideak	2008an aitorturiko eskubideak	Aldea, ehunekotan 09/08
1 Zuzeneko zergak	2.515.444	1.917.280	% 31
2 Zeharkako zergak	1.063.717	1.269.407	% -16
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.125.931	1.063.166	% 6
4 Transferentzia arruntak	2.396.374	2.101.282	% 14
5. Ondare diru-sarrerak	74.662	191.703	% -61
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	7.176.128	6.542.838	% 10
6 Inbertsio errealen besterentzea	0	2.500	% -100
7 Kapital-transferentziak	1.438.751	187.506	% 667
8 Finantza-aktiboak	0	0	
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	1.438.751	190.006	% 657
Diru-sarrerak, guztira	8.614.879	6.732.844	% 28

2008arekin alderatuta, diru-sarrera arruntak ehuneko 10 igo dira 2009an, zuzeneko zergetan aitorturiko eskubideen zenbatekoa handiagoa izan baita ibarreko bizilagunen kopurua etengabe igo-

tzearen ondorioz. Aitzitik, eta azken ekitaldian bezala, zeharkako zergek (EIOZ) jaisten jarraitzen dute, eraikuntzaren sektorearen egoera dela-eta:

	2009	2008	2007	2006
Diru-sarrera arruntak	7.176.128	6.542.838	9.289.739	14.512.381
Diru-sarrera arruntak, EIOZ kenduta	6.112.411	5.273.431	4.667.101	4.273.131
EIOZ	1.063.717	1.269.407	4.622.638	10.239.250

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin bat aztertuta egiaztatu ahal izan dugu oro har behar bezala izapidetu eta kontabilizatzen direla; halere, zenbait gabezia detektatu ditugu, dokumentazioa kudeatzeko eta artxibatzeako kontrolik ezaren eraginez.

VI.6. GORABEHERAK

Udalak, emandako informazioarekin bat, 15 prozedura judizialean dago sartuta 2010eko apirilean.

Prozedura horietako zenbaiti dagokionez, ez dakigu zer ondorio ekonomiko izan litezkeen. Ondorio ekonomikoak eragin litzaketenetatik, ondokoak nabarmentzen dira:

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, prozedura arruntekoa, 1197/2008 zenbakikoa, Apartamentos Gorráiz, SL-k aurkeztua, Gorraizen apartamentu-hotel bat eraikitzeako obren lizentzia deuseztatzeagatik 2005eko maiatzaren 20an aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa administrazio-isiltasunaren bidez ezestearen aurkakoa.

- Nafarroako Administrazio Auzitegiaren zenbait ebazpenen aurkako zenbait administrazioare-

kiko auzi-errekurtso, ebazpen horien bidez EIOZ-en likidazioa deuseztatzeagatik (guztira, 449.082 euro).

VI.7. HIRIGINTZA

Eguesibarko Udal Plana 2000ko abenduan onetsi zen behin betikoz.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– planeamendu indardunak homologatzeko eta egokitzeko.

Eguesibarko Udalaren plan orokorra berraztertzeko prozedura 2006an abiarazi zen. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean xedatutakoari egokitu gabe dago oraindik ere, 2011n udal planaren berrazterketa behin-behineko onetsi zen arren.

Udalak ez dauka Lurzoruaren Udal Ondarearen ez inbentariarik ez erregistro berariazkorik ere.

Bestalde, egiaztatu ahal izan dugu ez dagoela hirigintza espedienteen erregistro orokor bat, espedienteen kontrol, kudeaketa eta jarraipen egokia errazten duenik.

Hona gure gomendioak:

- *Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenetara moldatzea hirigintza-plangintza.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa eta inbentarioa eratzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, hirigintzari buruzko legedian jasotako helburuei lotuta dagoelako, izaeraz.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroan jasotzea, modu justifikatuan, sartzen diren lurra edo dirua, bai eta irteerak ere.*

- *Hirigintza espedienteen erregistro orokor bat egitea, espedienteen kontrol, kudeaketa eta jarraipen egokia errazte aldera.*

VI.8. ANDACELAY, SL

Eguesibarko Udalak Andacelay, SL sozietate publikoa eratu zuen 2004an, 4.000 euroko kapital sozialarekin, udalak osorik harpidetu eta ordaindua.

Bere helburuaren barruan –adierazi bezala, ez dauka izaera murrizgarria–, ondoko xedek daude: a) Aholkularitza teknikoa eta juridikoa, halan plangintzari nola hirigintza-kudeaketari dagokienez; b) Lurzoruaren sustapena, haren eraldaketaren eta urbanizazioaren bidez; c) Urbanizatzetik heldu diren obren kudeaketa eta ustiapena, kasuan kasuko emakida lortuz gero; d) Lurzatien besterentzea; e) Etxebizitzen sustapena eta zaharberritzea eta industria-nabean sustapena, salmenta- nahiz alokairu-araubidean; f) Erkidego-ekipamenduaren sustapena eta kudeaketa; h) Aisia-jardueren sustapena; i) Ostalaritza eta sukaldaritza; j) Administrazio-zerbitzuak, logistikoak eta entitate publiko eta pribatuekiko komunikazioa, eta k) Udalaren lur-ondarearen administrazioa, higiezin-merkatuan esku hartuta. Helburu hori garatu ahal izanen da helburu hau bera edo gisako duten beste sozietate batzuen partaidetzaren bidez.

Andacelay, SLk ondoko lurzatiak jaso ditu, Eguesibarko Udalak doan lagatuta, etxebizitza babestuen sustapenerako:

- 2005ean, Sarrigurengo 3B-4 lurzatia.
- 2006an, Sarrigurengo 3A-9 (a, b eta c) lurzatia.
- 2008an, A-1.1, A-1.2 eta A-1.3 lurzatiaren ehuneko 55,72, Ripagainako udalez gaindiko eragina duen plan sektorialeko berrantolatze-proiektutik heldu direnak.

Udalak, 2005eko otsailean, administrazio-klausulen orria onetsi zuen, sozietate anonimo mistoa eratze aldera. Deialdi hori, prentsan iragarki bat jarrita egin zena, 2006ko kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostenean aztertu zuen Ganberak (2009ko otsailean argitaratu zen). Helburua izan zen sozietate mistoko bazkide bat hautatzea, Sarrigurengo 3B4 lurzatian sustatze aldera, Andacelay SLren eta esleipen-hartzailearen artean, hirigintza jarduketan eta higiezin-sustapenaren kudeaketa. Administrazio-klausulen orriak orobat ezartzen du etorkizunean beste eremu batzuetara ere zabaldu ahalko direla jarduketak.

2009ko abenduan, Ripagainako A.1.1, A.1.2 eta A.1.3 lurzatiaren sustapenerako eta garapenerako sozietate misto berri bat eratze aldera, prozedura irekiaren bidezkoa, argitaratu zen Kontratazioaren Atarian.

Ondokoak dira deialdi horietatik sortu diren sozietateak (Andacelay SLren partaidetza ehuneko 51koa da bietan, eta bazkide pribatua ere bera da bietan, NASIPA, SL):

- *Gestión y Promoción Egüés 21, SA*, 2005eko deialditik sortu zena. Bazkide pribatuaren partaidetza ehuneko 49koa da. Kudeaketa-saria ehuneko 4koa da. Sozietateak ondoko lurzatiak erosi dizkio Andacelay SLri:

- Sarrigurengo 3B-4 lurzatia (2.252.809,91 euro, BEZa kanpo), prezio tasatuko 48 etxebizitza sustatzeko. Lurzati hori 2005eko deialdiaren xede izan zen.

- Sarrigurengo 3A-9 (a, b eta c) lurzatia (5.792.242,66 euro, BEZa kanpo), prezio tasatuko 114 etxebizitza eta babes ofizialeko 48 etxebizitza sustatzeko.

- *Gestión y Promoción Egüés 21-II, SL*, 2009ko deialditik sortu zena eta gure lan eremutik kanpo eratu zena 2010eko martxoan. Bazkide pribatuaren partaidetza ehuneko 48,97koa da, eta *Gestión y Promoción Egüés 21, SA*ren ehuneko 0,03koa. Kudeaketaren portzentajea ehuneko 2koa da, eta erosi beharreko lurzatiak, berriz, ondokoak:

- Ripagainako A.1.1, A.1.2 eta A.1.3 (3.262.960,75 euro, BEZa kanpo).

Andacelay, SL sozietatearen 2009ko abenduaren 31ko urteko kontuak, informazio modura II. eranskinean jaso ditugunak, kanpo auditoreek egindako auditoria finantzarioko txosten batean aztertu ziren, eta iritzia aldekoa izan zen.

Sozietatearen 2009ko abenduaren 31ko ondare garbia 12,4 milioi eurokoa zen; horietako 9,6 milioi euro erreserbak dira, Udalak doan lagatuta.

ko lurzatiak 8 milioi euroan (BEZa kanpo) saltzetik heldu direnak neurri batean, eta 2,5 milioi euro lagatutako azken lurzatiari dagozkio (saltzeko prozesuan da). Aktibo zirkulatzailaren "Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak" 8,6 milioi eurokoa da.

Lurzati horiek besterentzetik lortutako diru-sarrerak, udalaren lur-ondaretik heldu direnak, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 227. artikuluan ezarritako xedeetara bideratu behar dira. Horien artean dago

ekipamendu kolektiboak edo erabilera publikoko beste udal instalazio batzuk eraikitzea, baldin eta administrazio publikoek edo haien sozietate instrumentalek sustatzen badituzte.

Andacelay, SL sozietatearen Administrazio Kontseiluak –ez dauka baliabide berekirik– ondoko obrak esleitzeko prozedura onetsi zuen: "Sarrigurengo udal bulegoen eraikina" (2008ko urriaren 29an), "Sarrigurengo kirol hirian jolas- eta olgeta-igerilekuak eraikitzea" (2009ko azaroaren 26an). Hona xehetasunak:

	Mota	Esleipen-prozedura	Kontratazioaren Atariko lizitazio-iragarkia	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)
Sarrigurengo udal bulegoen eraikina egiteko kontratazioa	Obrak	Irekia	2008-11-03	5.964.588
Sarrigurengo kirol hirian jolas- eta olgeta-igerilekuak eraikitzeko proiektuaren idazketa, obraren zuzendaritza eta obra	Laguntza eta obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	2009-12-04	1.618.200

Sarrigurengo udal bulegoen eraikina egiteko kontratazio espedientea aztertu da; izan ere, jolas- eta olgeta-igerilekuak eraikitzearen esleipena 2010ean egin zen. Egindako azterketan egiaztatu da aplikatzekoa den administrazio-kontratazioari buruzko lege-printzipioak arrazoizko moduan errespetatu direla, nahiz eta ezin izan dugun egiaztatu kontratazioaren atarian esleipena argitaratu izana.

Laburbilduz, 4.000 euroko kapitaleko eta kudeaketa-baliabiderik gabeko udal enpresa publiko batek egin du 7,5 milioi euroko inbertsioa, eta horren mende daude bi enpresa misto, etxebizitzak sustatu eta eraikitzea emanak. Enpresa misto horiek udalaren lur-ondareko lurzatietan egiten dute jarduera hori (lurzatiak udal enpresa publikoari erositakoak dira, eta horrek, berriz udalak doan lagatuta lortu zituen lurzatiok).

Azkenik adierazi beharra dago hirigintzaren kudeaketa, Comptos Ganbera honen iritziz, gardentasun eta kontrol maila handienarekin egin behar dela, udal kudeaketako oinarritzko arlo horretan baliabide ekonomiko handiak erabiltzen direlako. Udalak, administrazioan erabat tipikoa den jarduera hori egiteko, hirigintza sozietateak

sortzeak eragotzi egiten du printzipio horiek betezea, eta zailagoa da hartara udal kudeaketa eta antolamendua.

Konplexutasun hori areagotu egiten da baldin eta higintza sozietatea, kasu honetan Andacelay SL, inbertsio handiak egiten ari baldin bada, Sarrigurengo udal bulegoen eraikina kasu, haren azken titulartasuna norena izan den jasota geratu gabe.

Hona gure gomendioak:

- *Udalak bere antolamendua erabakitzeke ahalmena eta egokien iritzitako hirigintza kudeaketako modua hautatzeko autonomia gorabehera, aztertu egin behar du jarduera hori hirigintza sozietateen bidez kudeatzeko egungo modua, bai eta ea kudeaketa modu hori guztiz egokitzen zaion udalak bilatu beharreko interes publikoari.*

- *Udalak diseinatu eta aplikatzea udalaren kapitaleko sozietateei, jardun orotan, ezarri beharreko finantza- eta eraginkortasun-kontrolerako prozedura juridiko eta teknikoak.*

- *Hirigintzari buruzko legedian nahiz kontratazio publikoari buruzkoan ezarritako irizpideak eta prozedurak zorrotz bete behar dira, tratu-berdinta-*

sunaren, gardentasunaren, lehiaren, objektibotasunaren eta publizitatearen printzipioak ziurtatzen baitituzte, era orobat bete behar da jarduera hori guztiari aplikatu beharreko udal kontrol egokia.

VI.9. GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21, SA

2005eko uztailaren 5ean eratu zen Gestión y Promoción Egüés 21, SA, 300.000 euroko kapital sozialarekin, zeinaren ehuneko 51 Andacelay SLk harpidetu baitzuen eta ehuneko 49 bazkide pribatu batek.

Sozietatearen helburua da higiezin mota oro erosi eta eraikitzea, higiezinaren sustapena, urbanizazioa, kudeaketa eta merkaturatzea, eta baita horiekin lotutako eta horien osagarri den beste edozein jarduketara ere. Haren jarduera nagusia

izan da Eguesibarko Udalean etxebizitzak sustatu eta eraikitzea.

Sozietateak, arestian adierazi bezala, Sarrigurengo 3B-4 lurzatia erosi zion 2005ean Andacelay SLri, prezio tasatuko 48 etxebizitza sustatzeko, eta 2007an, berriz, Sarrigurengo 3A-9 lurzatia, prezio tasatuko 114 etxebizitza eta babes ofizialeko 48 etxebizitza sustatzeko.

Sozietateak kanpoko auditoreek egindako auditoria finantzarioko txosten bat du, eta haien iritzia aldekoa da.

Txosten hau eman da indarrean dagoen araudiak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

I. ERANSKINA.- Ratioak

$$\text{Diru-sarrereren betetze-maila} = \frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$

$$\text{Gastuen betetze-maila} = \frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$$

$$\text{Kobraketen betetzea} = \frac{\text{Kobraketak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$

$$\text{Ordainketen betetzea} = \frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$

$$\text{Zorpetze maila} = \frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kap.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)}} \times 100$$

$$\text{Zorpetze muga} = \frac{\text{Diru-sarrera arruntak (1. - 5. kap.) Funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kap.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$$

$$\text{Zorpetze-ahalmena} = \text{Zorpetze muga} - \text{Zorpetze maila}$$

$$\text{Langile indizea} = \frac{\text{Langileria arloan aitorturiko betebeharrak (1. kap.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$$

$$\text{Inbertsio indizea} = \frac{\text{Inbertsio gastuak (6. eta 7. kap.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$$

$$\text{Diru-laguntzekiko mendekotasuna} = \frac{\text{Aitorturiko transferentzia bidezko eskubidak (4. eta 7. kap.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$$

$$\text{Biztanle bakoitzeko dirusarrerak} = \frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$$

$$\text{Biztanle bakoitzeko gastuak} = \frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$$

$$\text{Biztanle bakoitzeko gastu arruntak} = \frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira (1. kapitulutik 4.era)}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$$

$$\text{Biztanle bakoitzeko tributu-dirusarrerak} = \frac{\text{Tributu bidezko dirusarrerak (1, 2 eta 3 kap.)}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$$

$$\text{Biztanle bakoitzeko finantza-zama} = \frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kap.)}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$$

$$\text{Biztanle bakoitzeko zorra} = \frac{\text{Epe luzeko zorra}}{\text{Eskubideko biztanleria}}$$

II. ERANSKINA: Andacelay, SLren egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

Egoera-balantze laburtua. 2009ko eta 2008ko ekitaldiak

AKTIBOA

	2009	2008
A. AKTIBO EZ KORRONTEA	1.858.230	260.079
II. Ibilgetu materiala	1.705.230	107.079
IV. Talde-enpresetako eta enpresa elkartuetako epe luzeko inbertsioak	153.000	153.000
B. AKTIBO KORRONTEA	11.743.445	12.398.726
II. Izakinak	2.484.612	2.484.612
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	671.981	598.582
V. EPE MOTZEKO INBERTSIO FINANTZARIOAK		9.032.391
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	8.586.853	283.141
AKTIBOA, GUZTIRA	13.601.675	12.658.805

PASIBOA

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2009	2008
A. ONDARE GARBIA	12.447.109	12.124.029
A.1 Funts berekiak	9.962.498	9.639.417
Kapital diru-sarrera	4.000	4.000
III. Erreserbak	9.620.923	8.563.840
VII. Ekitaldiko emaitza	337.575	1.071.578
A.3 Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	2.484.612	2.484.612
B. PASIBO EZ KORRONTEA	9.800	9.800
II. Epe luzeko zorrak	9.800	9.800
C. PASIBO KORRONTEA	1.144.766	524.976
IV. Talde-enpresetako eta enpresa elkartuetako epe motzeko zorrak	646.082	397.538
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	498.684	127.438
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	13.601.675	12.658.805

Irabazi eta galera laburtuen kontua 2009ko eta 2008ko ekitaldiak

	2009	2008
1 Negozio-zifraren zenbateko garbia		600.000
2 Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldaketa		
3. Enpresak, bere aktiborako, egindako lanak		
4 Hornidurak		
5 Bestelako ustiatze diru-sarrerak		
6 Langileria-gastuak	-1.685	-1.620
7 Bestelako ustiatze-gastuak	-7.993	-8.806
8 Ibilgetuaren amortizazioa	-571	-571
9 Ibilgetu ez finantzairioko diru-laguntzen egozpena		
10 Gehiegizko hornidurak		
11 Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura		
Beste emaitza batzuk	-27.000	-121.526
A) USTIATZEAREN EMAITZA	-37.249	467.477
12. Diru-sarrera finantzarioak	375.603	606.524
13. Finantza-gastuak		
14. Tresna finantzarioetako balio-aldaketa arrazoizkoa		
15. Aldaketako aldea		
16. Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura		
B) EMAITZA FIANTZARIOA	375.603	606.524
C) ZERGA AURREKO EMAITZA	338.353	1.074.001
17. Mozkinen gaineko zerga	-778	-2.423
D) EKITALDIKO EMAITZA	337.575	1.071.578

Ondare garbiko aldaketen egoera laburtua, guztira 2009ko eta 2008ko ekitaldiak

	Kapital egituratua	Erreserbak	Ekitaldiko emaitza	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	Guztira
A) SALDOA, 2007. URTEAREN AMAIERAN	4.000	2.279.110	6.284.730	0	8.567.840
B) SALDO DOITUA, 2008. URTEAREN HASIERAN	4.000	2.279.110	6.284.730	-	8.567.840
I. Aitorturiko diru-sarrera eta gastuak, guztira			1.071.578	2.484.612	3.556.189
III. Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk		6.284.730	-		0
C) SALDOA, 2008. URTEAREN AMAIERAN	4.000	8.563.840	1.071.578	2.484.612	12.124.029
II. Akatsak direla-eta egindako doikuntzak, 2008		-14.495			-14.495
D) SALDO DOITUA, 2009. URTEAREN HASIERAN	4.000	8.549.345	1.071.578	2.484.612	12.109.534
I. Aitorturiko diru-sarrera eta gastuak, guztira	0	0	337.575		337.575
III. Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk	0	1.071.578	-	0	0
A) SALDOA, 2009. URTEAREN AMAIERAN	4.000	9.620.923	337.575	2.484.612	12.447.109

GEHIGARRIA: Gestión y Promoción Egüés 21, SAREN egoera-balantze laburtua eta galeren eta irabazien kontu laburtua

Egoera-balantze laburtua. 2009ko eta 2008ko ekitaldiak

AKTIBOA

	2009	2008
A. AKTIBO EZ KORRONTEA	360,66	360,66
V. EPE LUZEKO INBERTSIO FINANTZARIOAK	360,66	360,66
B. AKTIBO KORRONTEA	3.741.065,97	23.133.916,01
II. Izakinak	3.452.173,44	22.250.129,02
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	540,79	816.193,85
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	288.351,74	67.593,14
AKTIBOA, GUZTIRA	3.741.426,63	23.134.276,67

PASIBOA

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2009	2008
A. ONDARE GARBIA	966.814,22	597.254,97
A.1 Funts berekiak	966.814,22	376.338,68
Kapital dirusarrera	300.000,00	300.000,00
III. Erreserbak	76.338,68	40.750,45
VII. Ekitaldiko emaitza	590.475,54	35.588,23
A.3 Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0,00	220.916,29
B. PASIBO EZ KORRONTEA	2.401.960,60	16.716.511,99
II. Epe luzeko zorrak	2.401.960,60	16.716.511,99
C. PASIBO KORRONTEA	372.651,81	5.820.509,71
III. Epe laburreko zorrak	8.490,84	0,00
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	364.160,97	5.820.509,71
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	3.741.426,63	23.134.276,67

Irabazi eta galera laburtuen kontua 2009ko eta 2008ko ekitaldiak

	2009	2008
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	26.221.719,62	30.000,00
2. Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldaketa	18.803.260,16	-
3. Enpresak, bere aktiborako, egindako lanak	0,00	11.400.034,85
4. Hornidurak	-5.398.457,15	0,00
5. Bestelako ustiatze diru-sarrerak	631.189,40	-9.627.579,55
6. Langileria-gastuak	0,00	0,00
7. Bestelako ustiatze-gastuak	-1.385.255,67	0,00
8. Ibilgetuaren amortizazioa	0,00	-1.266.962,03
9. Ibilgetu ez finantzairioko diru-laguntzen egozpena	0,00	0,00
10. Gehiegizko hornidurak	0,00	0,00
11. Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0,00	0,00
13 Bestelako emaitzak	67.401,03	35.912,68
A) USTIATZEAREN EMAITZA	1.333.337,07	571.405,95
14. Diru-sarrera finantzarioak	10,56	6,68
15. Finantza-gastuak	-490.668,29	-521.429,44
16 Tresna finantzarioetako balio-aldaketa arrazoizkoa	0,00	0,00
17. Aldaketako aldea	0,00	0,00
18. Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	0,00	0,00
B) EMAITZA FIANTZARIOA	-490.657,73	-521.422,76
C) ZERGA AURREKO EMAITZA	842.679,34	49.983,19
17. Mozkinen gaineko zerga	-252.203,80	-14.394,96
D) EKITALDIKO EMAITZA	590.475,54	35.588,23

Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (25. or.).
- II. Helburua (26. or.).
- III. Norainokoa (27. or.).
- IV. Iritzia (27. or.).
 - IV.1. Udalaren eta bere erakunde autonomoen kontu orokorra, 2009ko ekitaldikoa (27. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (27. or.).
 - IV.3. 2009ko abenduaren 31ko egoera finantzarioa. (27. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan emandako gomen-dioen jarraipena. (28. or.).
- V. Finantzen egoera-orriak (29. or.).
 - V.1. 2009ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (29. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emaiza bateratua, 2009ko ekitaldia (30. or.).

V.3. Diruzaintzako gerakin bateratua, 2009ko ekitaldia (30. or.).

V.4. Egoera-balantze bateratua, 2009ko ekitaldia (31. or.).

VI. Iruzkina, ondorioztapenak eta gomendioak (32. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (32. or.).

VI.2. Langileak. (32. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (32. or.).

VI.4. Inbertsioak (33. or.).

VI.5. Inbentarioa-ibilgetua (34. or.).

VI.6. Hirigintza (35. or.).

Eranskina. 2009ko ekitaldiko finantzen egoera-orri bateratuen oroitidazkia.

Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokoren bulegoetan, bai eta honako web helbide honetan ere:

www.cfnavarra.es/camara.comptos

I. SARRERA

Comptos Ganberak, bere jarduketa-programari jarraituz, udalaren eta bere erakunde autonomoen (Ardoi Kirol Patronatua, Kultur Patronatua eta Musika Patronatua) 2009ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

2009ko urtarrilaren 1ean, udalak 13.348 biztanleko populazioa zeukan, eta, bere erakunde autonomoekin batera, honako zifra adierazgarriak zituen 2009ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 2009-12-31n
Udala	13.032.275,53	12.732.641,41	117
Ardoi Kirol Patronatua	557.574,22	548.594,68	0
Kultur Patronatua	514.848,33	536.306,57	0
Musika Patronatua	458.502,10	458.908,07	13
Bateratzearen doitzeak	(690.985,26)	(690.985,26)	
Guztira	13.872.214,92	13.585.465,47	130

Oharra: 2009ko abenduaren 31ko langileei buruzko zenbakietan sartuta daude enplegu sozialaren bidez diharduten 8 langile eta laneratze bidez diharduen beste bat.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraioak eta ibai-parkearen kudeaketak.

Horrez gain, Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan eta Nafarroako Udal Informatikaren Elkartean parte hartzen du.

Toki entitateari 2008ko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.
- Legegintzako 251/1993 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuari buruzkoa.
- 6/2006 Foru Legea, Kontratu Publikoari buruzkoa, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei dagokien ezartzen dituen berezitasunekin.
- 30/2007 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuari buruzkoa.
- 9/2008 Errege Lege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki-inbertsioko estatu-funts bat eta ekonomia nahiz enplegua dinamizatzeko estatu-funts berezi bat eratzen dituen eta haren finantziarioari aurre egiteko kreditu bereziak onesten dituen.
- 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru Dekretuak dira,

zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- 2009ko aurrekontuaren betetze-oinarriak, eta udaleko gainerako barne-araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, honako hauei buruz daukagun iritzia: kontu orokorra, legezketasuna, finantza-egoera eta lehenagokok gomendio batzuen jarraipena. Bosgarren atalean jaso ditugu Zizur Nagusiko Udalaren eta bere erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratu nagusiak. Seigarren eta azken atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo.

Horrez gain, 2009ko ekitaldiko kontuei buruz udalak eginiko oroitidazkia biltzen duen eranskin bat ere gehitu da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearekin eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Zizur Nagusiko Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin da.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

- a) Zizur Nagusiko Udalaren 2009ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinengana entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak,

eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak 2009an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

c) Entitatearen egoera finantzarioa 2009ko abenduaren 31n.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua, barne kontrola eta kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren kontu orokorraren fiskalizazioa egin du: udalarena berarena eta haren erakunde autonomoena –Ardoi Kirol Patronatua, Kultur Patronatua eta Musika Patronatua– hartzen ditu.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontu-emaizta eta udalaren eta bere erakunde autonomoen diruzaintza-gerakin bateratuak.

- Entitatearen eta bere erakunde autonomoen egoera-balantze bateratua.

- Oroitidazkia.

- Entitatearen eta bere erakunde autonomoen galera eta irabazi indibidualen kontua..

Udalak Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek badute kontabilitate orokorra ere, udalean ezarritako ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araueri jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak bildu dira. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta bere erakunde autonomoiei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiboak

ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak.

IV. IRITZIA

Eginiko lanak duen norainokoa kontuan hartuta, 2009ko ekitaldiari dagokion Zizur Nagusiko Udalaren eta bere erakunde autonomoen kontu orokorra aztertu dugu; kontu hori prestatzea eta bere edukia udalaren erantzukizuna dira.

Gure azterketan oinarriturik, honako iritzi honetara iritsi gara:

IV.1. UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTU OROKORRA, 2009ko EKITALDIKOA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.

Lehenago aipaturiko salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa biltzen du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta araueri jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren eta bere erakunde autonomoen jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezotasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2009ko ABENDUAREN 31ko EGOERA FINANTZARIOA

Jarraian, 2009ko ekitaldiari dagozkion datu batzuk aurkeztuko ditugu.

2009an, osoko bilkurak ez zuen aurrekontua onetsi, eta, horrenbestez, aurreko urtekoa luzatu egin zen.

Behin betiko aurrekontuak 26,6 milioiko diru-sarrerak eta 20,9 milioiko gastuak zeuzkan, hasierako aurrekontuan 10 milioi egiten zuten aldaketak egin ondoren. Aldaketa horiek, zatirik handienean, inbertsioekin zerikusia zeukaten kontusailak eranstearen ondoriozkoak izan ziren.

Ekitaldiko gastuek 13,8 milioi egin dituzte, eta diru-sarrerak, 13,6 milioi. Ekitaldiko aurrekontu-emaizta doituak 231.657 euroko superabita izan da.

Betetzearen desbideraketa gertatu da, batez ere, inbertsioen errealizazio-maila apalarengatik (3 milioi, nahiz eta 9 aurreikusten ziren) eta, beraz, haien finantzaketarenarengatik eta EIOZengatik diru-bilketaren beherakadarengatik.

Udalak ez dauka zorrik, eta 33,1 milioiko diru-

zaintza-gerakina dauka: zenbateko horretatik, 5,7 milioi xedapen librekoak dira.

Egoera finantzario horri buruz behar bezalako irizpena eman ahal izateko, beharrezkoa da zenbait adierazlek azken urteotan izandako bilakaera aztertzea:

	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Zorpetze-maila	% 0	% 0	% 0	% 0	% 0	% 0
Zorpetze-muga	% 2,16	% 0	% 14,85	% 39,64	% 16,80	% -1,14
Zorpetze-ahalmena	% 2,16	% 0	% 14,85	% 39,64	% 16,80	% -1,14
Gastu arruntak biztanleko	585	624	642	648	750	806
Tributuen diru-sarrerak biztanleko	317	331	401	687	414	401

Datu horiek erakusten dute udalak ez daukala zorpetzeko ahalmenik, eta 2006tik 2008ra bitarteko zorpetze-ahalmena koiunturala izan zela, hiri-gintza-eragiketen bidez sorturiko baliabideetatik eratorria batez ere.

Biztanle bakoitzeko gastu arruntek urtean ehuneko 6,62ko gorakada erakusten dute; tributuen diru-sarreraren gorakada, ordea, urtean ehuneko 4,81ekoa da.

Ikusirik ezen gaur egungo koiuntura ekonomikoak aurreko urteko EIOZaren diru-sarreraren itzul-keta mardula eragin duela (255.108 euro), bai eta ondarearen diru-sarreraren (interes) beherakada ere, irizten dugu udalak epe ertaineko plan ekonomiko bat prestatu behar duela, zeinean aurreikusiko baitira ohiko diru-sarrera errepikatuak eta funtzionamendurako nahitaezko gastuak, eta ezarriko baita zer-nolako lehentasunarekin, kasua bada,

ekin ahalko zaien inbertsio berriei. Hori guztia, kontuan harturik hazten ari den udalerrria dela, eta horren ondorioz beharrezkoa gerta daitekeela zerbitzu batzuk indartzea.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA.

Oro har, bete gabe jarraitzen dute aurreko txostenetako administrazio eta kontabilitate arloko zenbait gomendiok. Ondokoek, besteak beste:

- Udal inbentarioa gaurkotu eta onestea.
- Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa sortzea.
- Kirol eta kultur patronatuak udal zerbitzu bihurtzeko aukerak aztertzea.
- Plantilla organikoa onestea.

V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK**V.1. 2009KO EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindua	Ordaintzeko dagoena
Langileria-gastuak	4.662.859	516.300	5.179.159	4.732.743	4.644.299	88.445
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	5.592.369	91.937	5.684.306	5.098.744	4.745.396	353.348
Finantza-gastuak	720	36.089	36.809	13	13	0
Transferentzia arruntak	499.182	530.821	1.030.003	920.690	510.989	409.701
Inbertsio errealak	120.000	8.788.137	8.908.137	3.095.225	2.446.770	648.455
Aktibo finantzarioak	0	54.000	54.000	24.800	19.800	5.000
Gastuak, guztira	10.875.130	10.017.284	20.892.414	13.872.215	12.367.267	1.504.948

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Kontzeptua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobratutakoa	Kobratzeko dagoena
Zuzeneko zergak	2.483.900	0	2.483.900	2.637.639	2.418.607	219.032
Zeharkako zergak	2.000.000	0	2.000.000	36.388	23.195	13.193
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.470.849	13.550	2.484.399	2.677.558	2.549.866	127.692
Transferentzia arruntak	4.215.409	23.700	4.239.109	4.575.991	4.254.001	321.991
Ondarearen diru-sarrerak	1.069.364	0	1.069.364	703.802	702.756	1.047
Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	9.359	9.359	0
Kapital-transferentziak	4.503.450	2.334.298	6.837.748	2.928.347	2.173.597	754.750
Aktibo finantzarioak	54.000	5.036.188	5.090.188	16.381	16.381	0
Pasibo finantzarioak	0	2.455.000	2.455.000	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira	16.796.972	9.862.736	26.659.708	13.585.465	12.147.761	1.437.704

V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA, 2009ko EKITALDIA

Kontzeptua	2008	2009
+ Aitorturiko eskubide garbiak	16.862.031	13.585.465
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	15.080.215	13.872.215
= Aurrekontu-emaiza	1.781.816	-286.750
DOITZEAK		
- Finantzaketaren desbideraketa positiboa	1.577.457	271.492
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	152.072	40.433
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	462.863	749.466
= Aurrekontu-emaiza doituak	819.294	231.657

V.3. DIRUZAINZAKO GERAKIN BATERATUA, 2009ko EKITALDIA

Kontzeptua	2008	2009
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	30.223.640	1.539.569
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	602.459	1.437.704
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	293.957	389.634
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	29.615.275	65.040
+ Ordainketen itzulketak	840	0
(-) Dirubilketa zaileko eskubideak	269.7212	310.002
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	19.169	42.807
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.167.211	1.711.617
(+) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	995.003	1.504.948
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	4.240	4.563
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	167.968	202.106
(+) Diruzaintzako funts likidoak	4.400.633	33.270.950
(+) Finantziazio-desbideraketa metatu negatiboak	2.871	22.329
= Diruzaintzako gerakina, guztira	33.459.933	33.121.231
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	1.775.589	1.455.856
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	26.085.391	25.938.288
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	5.598.953	5.727.087

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA, 2009ko EKITALDIA

Aktiboa

Deskribapena	2008	2009
IBILGETUA	60.403.401	63.488.947
Ibilgetu materiala	19.406.947	20.764.749
Ibilgetu ez-materiala	397.843	419.666
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	40.596.630	42.302.551
Herri-ondasunak	0	0
Ibilgetu finantzarioa	1.981	1.981
ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	0	0,00
Deuseztatu beharreko gastuak	0	0
ZIRKULATZAILEA	34.944.385	35.201.024
Izakinak	0	0
Zordunak	30.512.531	1.892.378
Kontu finantzarioak	4.420.922	32.299.666
Egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0	0
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (galera)	10.932	8.980
AKTIBOA, GUZTIRA	95.347.786	98.689.971

Pasiboa

Deskribapena	2008	2009
FUNTS BEREKIAK	94.161.406	96.935.547
Ondarea eta erreserbak	75.406.672	81.051.904
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	5.665.753	502.550
Kapital-dirulaguntzak	13.088.981	15.381.093
ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	0	0
Hornidurak	0	0
EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	0	0
Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	0	0
EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	1.186.380	1.754.424
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.167.211	1.711.617
Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	19.169	42.807
PASIBOA, GUZTIRA	95.347.786	98.689.971

VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Udalak 2009ko ekitaldirako luzatu egin du aurreko ekitaldirako onetsiriko aurrekontua. Beraz, aurrekontuko diru-sarreraren eta gastuen kredituak dira 2008ko ekitaldiko hasierako aurrekontuak, salbu eta egiturazkoak ez diren gastuei dagozkien kredituak eta kredituekin finantzaturiko kredituak edo soilik 2008ko ekitaldian jasotako berariazko beste diru-sarrerak, zeinei luzapen horrek ez baitie eragiten, gastu-aurrekontuko kredituen luzapena arautzen duen 270/1998 Foru Dekretuko 21. artikuluari jarraituz.

Aipaturiko foru dekretuak ez du esanbidez xedatzen zer modutan luzatuko den diru-sarreraren aurrekontua; horrenbestez, udalak, Toki Administrazioiko Departamentuaren irizpideei jarraituz, diru-sarreretako kapital-transferentzien kapituluaren 4.503.450 euroko kopurua luzatu du; horren zatirik handiena, 2008ko ekitaldian jasotzekoak ziren eta egiazki jaso eta ekitaldi horretako betetzearen egoera-orrian aitortu ziren diru-sarrerengatik. Diru-sarrera horien luzapenak haien aurrekontu-zenbatekoaren gainbalioespena eragiten du, nahiz eta horrek ondoriorik ez dakarren aurrekontu-betetzeari dagokionez.

Aurrekontuaren espedientea berrikusirik ondorioztatzen da udalak ez dituela bete irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuan zehazturiko honako xehetasun hauek (foru dekretu horren bidez garatzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, aurrekontuen eta gastu publikoaren alorrean):

– Aurrekontuaren espedientea osoko bilkurari eta toki-administrazioari igortzeko epeak eta aurrekontua likidatzeko epea.

– Udalaren beraren eta bere erakunde autonomoen galera eta irabazien kontu bateratua prestatzea.

Kirol eta kultur patronatuek udalaren langileen eta instalazioen bitartez ematen dute zerbitzua.

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuaren espedientea prestatzean 270/1998 Foru Dekretuan zehazturiko xehetasunak betetzea.*

- *Kirol eta kultur patronatuak udalaren zerbitzu deszentralizatu bihurtzeko aukera aztertzea, ez baitute ez instalazio ez langile berekirik.*

VI.2. LANGILEAK.

Udalaren langileria-gastuak 4.732.743 eurokoak dira; horrenbestez, gastuen guztizkoaren ehuneko 34 eta ekitaldian aitorturiko gastu arrunten ehuneko 44 egiten dute. 2008. urtearen aldean, gastuak ehuneko 5eko gorakada izan du.

2008ko ekitaldian bezala, gastu guztiaren ehuneko 91 udalari dagokio, eta ehuneko 9, musika patronatuari.

2009ko abenduaren 31n zeuden 130 langileetatik, 117 udalarenak dira, eta 13, musika patronatuarenak. Udalarenetatik, funtzionarioak dira 68, lan-kontratadun finkoak 9, eta aldi baterako lan-kontratadunak 40.

2008 eta 2009rako plantilla organikoa ez zen ekitaldian onetsi; horrela, ba, 2007rako onetsitakoak indarrean segitzen du.

Plantilla onetsi gabe egote horren ondorioz, aldea dago 2007ko plantillaren eta errealitatearen artean, eta ezinezkoa gertatzen da behin betiko betetzea beharrezkoak diren lanpostuak. Egoera hori larriagoa da kontuan hartzen baldin badugu udalerrria hazten ari dela eta, beraz, langile-beharrian berriak dauzkala.

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren eta bere erakunde autonomoen plantilla organikoa onestea. Plantilla horrek izan behar du lehenago aipaturiko epe ertaineko plan ekonomikoa ezartzen diren irizpideen eta beharrianen arabera.*

- *Lanpostuak egokitu behar zaizkio plantilla organikoan xedatutakoari.*

- *Plantilla organikoko lanpostu hutsak betetzeko egokiak diren kontratu-figurak erabili behar dira.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Kapitulu honetan aitorturiko betebeharrek 5.098.744 euro egiten dute; alegia, ekitaldiko gastu guztien ehuneko 37 eta gastu arrunten ehuneko 47. 2007ko ekitaldiaren aldean, gorakada ehuneko 4koa izan da.

Gastu horien ehuneko 84 udalarenak dira (4.280.147 euro), ehuneko 9 Kultura Patronatuarenak (477.861 euro), ehuneko 6 Kirol Patronatuarenak (330.146 euro) eta gainontzeko 10.590 euroak, berriz, Musika Patronatuarenak.

Hona gastu horiek, zehaztuta:

Kontzeptua	2009an aitorturiko betebeharrak
Errentamendua	18.748
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	465.490
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	4.478.150
Zerbitzua dela-eta emaniko kalte-ordainak	113.376
Argitalpen-gastuak	22.530
Guztira	5.098.744

Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteagatiko gastuak berrikusi ditugu eta, horrez gain, 2009an indarrean izanik aurreko ekitaldietan esleiturikoak

ziren kontratuen jarraipena egin dugu, bai eta ekitaldian izapideturiko honako kontratazio-espeditena ere:

	Kontratu-mota	Esleipena	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kenduta)
"Camino de Santiago" ikastetxe publikoaren garbiketa	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	86.926
Haur eta gazteen alorreko esku-hartze sozialeko programa	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	99.828
Haurren kirol-jarduerei buruzko proiekturako laguntza-kontratua	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	51.426
Kirol-jardueretarako eta muskulazio-aretorako laguntza-kontratua	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	47.308
2009/2010 ikasturterako igeriketa-jardueren proiekturako laguntza-kontratua	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	37.988

Eginiko azterketan oinarriturik, azpimarratu behar dugu ezen, kasu batzuetan:

– Hartzekodun batek berak helarazitako hornidura edo emandako laguntza-zerbitzu batzuetan, betebeharren guztizko zenbatekoak behartzen du kontratazio-prozeduraren bat egitera.

– Badaude zenbait kontratu baldintza-orrian ezarritako denbora-epeaz haratago luzatuak izan direnak.

Hona gure gomendioak:

- *Indarreko araudiak agindutako dokumentu guztiak egitea izapidetzen diren aldageta-espeditente guztietan, eta dokumentu horiek egitea araudi horrek ezartzen duen epearen barrenean.*

- *Kontratazio-prozedurak egitea kontratuei buruzko legeak zehazten dituen zenbatekoak*

gainditzen dituzten hornidura- eta laguntza-zerbitzu guztietarako.

- *Baldintza-orrian ezarritako gehieneko luzapen-epeak betetzea.*

VI.4. INBERTSIOAK

Ekitaldian eginiko inbertsioek 3.095.225 euro egiten dute, eta horrek esan nahi du betetzea dela behin betiko aurrekontuaren (8.908.137 euro) ehuneko 35ekoa.

2008arekin alderatuta, ehuneko 39ko beherakada izan dute, 2008ko maiatzean Ardoiko U-1 sektoreko urbanizazio-obra amaitu zirelako (obra horiek 2005ean esleitu eta 2006an hasi ziren). Kontratu honi 2008an zehar loturiko gastua 4,2 milioi eurokoa izan zen; 2009an, berriz, 0,45 milioi eurora jaitsi da.

Jarraian, betebeharren xehetasunak:

Kontzeptua	Betebeharrak, 2009an aitortuak
Azpiegiturak eta erabilera publikoko ondasunak	1.715.600
Zerbitzuen funtzionamenduari loturiko inbertsioak	1.357.803
Inbertsio ez-materialak	21.822
Guztira	3.095.225

Inbertsio-obren barrenean sartzen dira 2009an toki-inbertsioko estatu-funtsaren kargura finantzaturikoak.

Plan honetan ondoko obrak daude sartuta:

– Zoru-aldaketa egitea Belaskoango hiribidean.

– "Camino de Santiago" ikastetxe publikoa eraberritzea.

– Herriguneko espaloien zoladura.

– San Cristóbal ingurabidearen argiztapena

– San Cristóbal ingurabidearen berrurbanizazioa.

Obra horien lizitazioa 2,33 milioikoa izan zen. 2,14 milioian esleitu eta 2,26 milioian kitatu ziren. 2009an 1,5 milioi jaso ziren, eta 2010ean, gainerako 0,76 milioiak.

Inbertsioetako gastuak aztertu ditugu, bai eta ondoko kontratazio-espedienteak ere:

	Kontratu-mota	Esleipena	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kenduta)
"Camino de Santiago" ikastetxe publikoaren eraberritzea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheitikoa, eta presako izapidean.	420.142
San Cristóbal ingurabidea berrurbanizatzea eta Santa Cruz kaleko aparkalekuak.	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheitikoa, eta presako izapidean.	525.633
San Cristóbal ingurabideko argiztapen publikoa berritzea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheitikoa, eta presako izapidean.	462.362
Eskola-gunea berrurbanizatzea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	1.276.974
Udako igerilekuetarako obren exekuzio- eta zuzendaritza-proiektua idaztea	Laguntza	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	78.448
Kanpo-igerilekuen igeriontzia birmoldatzea.	Obrak	Irekia	1.486.306

Eginiko azterketan oinarriturik, ondorioztatzen da inbertsioak egin direla indarreko araudiari jarraituz.

VI.5. INBENTARIOA-IBILGETUA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.

Hona gure gomendioak:

• *Udal ondasunak (jabari publikokoak, ondasunak eta herri ondasunak) eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua burutzea.*

• *Udal inbentarioa eguneratu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, zeinak erraztuko baitu hura etengabe eguneratuta eta kontabilitatean ibilgetuarekin lotuta egotea, eta lurzuaren udal ondareari dagozkion ondasunen banan-banakako idatzoharra egitea.*

VI.6. HIRIGINTZA

Zizur Nagusiko Udalak 2004an onetsitako udal plan bat dauka, aurreko hirigintza-legediaren arabera idatzia eta alderdi garrantzitsuenetan Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeari egokitua.

Udalak ez du lurzoru-ondarearen erregistro bat, bertan jasotzeko sartzen diren lurrak edo dirua eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritako xedeetarako ateratzen direnak. Alabaina, udalak baliabide atxikiak eta haien aplikazioaren jarraipena egiten du.

Ekitaldian garatutako jarduketak udalak egindako oroitidazkian ageri dira zehaztuta. Oroitidazkia honekin batera doa, eranskin gisa.

Eginiko berrikuspenaren arabera, udalak legezadapenak modu onargarrian betetzen ditu hirigin-

tza-proiektu desberdinetan. Antolamenduari dago-kionez, ikus daiteke eginkizunen banaketa zehatzik ez dagoela hirigintzaren alorrean.

Hona gure gomendioak:

- *Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Legeak xedatua betetzeko, Lurzoruaren Udal Ondarearen Erregistroa eratzea.*

- *Antolamendu-egitura bat ezartzea hirigintza alorrean, prozesu bakoitzerako arduradunak identifikatuz eta esleituz.*

Txosten hau egin da, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2011ko martxoaren 8an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko martxoaren 14an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Lizarrako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (36. or.)
- II. Helburua (37. or.)
- III. Norainokoa (37. or.)
- IV. Iritzia (37. or.)
 - IV.1. Udalaren kontu orokorra, 2009ko ekitaldikoa (37. or.)
 - IV.2. Legezketasuna (38. or.)
 - IV.3. 2009ko abenduaren 31ko egoera finantzarioa (38. or.)

IV.4. Aurreko txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioen betetzea (38. or.)

V. Kontu orokor bateratuaren laburpena (40. or.)

V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera (40. or.)

V.2. Aurrekontu-emaizta bateratua (41. or.)

V.3. Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoerorra (41. or.)

V.4. Egoera-balantze bateratua (42. or.)

V.5. Galera eta irabazien kontua (43. or.)

VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK (44. or.)

VI.1. Alderdi orokorrak (44. or.)

VI.2. Langileak (45. or.)

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (45. or.)

VI.4. Inbertsioak (46. or.)

VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (49. or.)

VI.6. Ibilgetua eta inbentarioa (50. or.)

VI.7. Gorabeherak (50. or.)

VI.8. Hirigintza (50. or.)

VI.9. "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarra, S.A." udal sozietatea (51. or.).

Eranskina: Urteko kontu bateratuei buruzko txostena.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorren bulegoetan, bai eta honako web helbide honetan ere:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Comptos Ganberak Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomo "Julián Romano" Musika Patronatuaren 2009ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Lizarrako Udalak 15,93 km²-ko hedadura dauka, eta 2009ko urtarrilaren 1ean 14.238 biztanle zituen.

Udalak eta "Julián Romano" musika patronatua zenbateko hauek zituzten 2009ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2009-12-31n
Udala	18.280.169	19.220.293	123
Musika Patronatua	416.224	397.916	22
-Bateratzearen doitzeak	-201.874	-201.874	
Bateratua, guztira	18.494.519	19.416.335	145

Oharra: 2009ko abenduaren 31ko langileei buruzko zenbakietan sartuta daude enplegu sozialaren bidez diharduten 31 langile.

Udalak, 2006an, "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarra S.A." enpresa sortu zuen. Kapital soziala udalarena zen guztiz, 60.500 eurokoa hain zuzen. Sozietate horrek ez du inolako jarduketarik egin.

Jurramendiko Mankomunitatearen barruan da udala, eta haren bidez eskaintzen ditu ur horniketa eta zabor-bilketa zerbitzuak. Lizarraldeko Turismo Partzuergoan eta L'Urederra elkartean ere parte hartzen du.

Lizarrako Udalari 2009ko ekitaldian aplikatzea zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko uztailaren 2ko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuena.

- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretua, toki-inbertsioko estatu-funts bat eta ekonomia nahiz enplegua dinamizatze estatu-funts berezi bat eratzen dituena.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru Dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren 2009ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, honako hauei buruz daukagun iritzia: kontu orokorra, legezketasuna, finantza-egoe- eta lehenagoko gomendio batzuen jarraipena. Bosgarren atalean kontu orokor bateratuaren

laburpen bat jaso dugu, eta, seigarren eta azkenean, berriz, udalaren, haren erakunde autonomoaren eta haren mendeko sozietate publikoaren barne-antolaketa eta -kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Horrez gain, 2009ko ekitaldiko kontuei buruz udalak eginiko oroitidazkia biltzen duen eranskin bat ere gehitu da.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Lizarrako Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoko langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearekin eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Lizarrako Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin da.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Lizarrako Udalaren 2009ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinenetan, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Lizarrako Udalak eta haren erakunde autonomoak 2009an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2009ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan ganbera honek emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Lizarrako Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Kontabilitateko honako egoera-orriak dauzka:

- Entitatearen beraren eta "Julián Romano" musika patronatua erakunde autonomoaren kontua: aurrekontuaren likidazioa, balantzea, galeren eta irabazien kontua eta eranskinak.

- Udal sozietatearen urteko kontuak: balantzea, galeren eta irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta oroitidazkia.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera eta kontu-har-tzailtzaeren txostena.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta ingurua-barren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta haren erakunde autonomoiei eta sozietateari dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarrizko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketako, kontabilitateko eta barne-kontrolako alderdi nagusiak.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Lizarrako Udalaren, haren erakunde autonomoaren eta haren menpeko sozietatearen 2009ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren ardura da kontuaren prestaketa eta edukia.

Gure lanetik ondoko iritzia ondorioztatu dugu:

IV.1. UDALAREN KONTU OROKORRA, 2009KO EKITALDIKOA.

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, oraindik eguneratu gabe dago eta ez ditu ondasun eta eskubide guztiak jasotzen; hartara, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2009ko abenduaren 31n, 70.106.123 eurokoa zen.

Arestian aipatutako salbuespenarengatik izan ezik, udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, 2009ko abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta arauari jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2009ko ekitaldian udalaren eta haren erakunde autonomo "Julián Romano" Musika Patronatuaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkotasun-printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2009KO ABENDUAREN 31KO EGOERA FINANTZARIOA.

Behin betiko aurrekontu bateratua, 2009ko abenduaren 31n, 25,5 milioi eurokoa zen.

2009ko ekitaldian aitorturiko betebeharrak 18,5 milioi euro egiten dute –betetze-maila ehuneko 72koa izan da–, eta likidaturiko eskubideek, berriz, 19,4 milioi euro –betetze-maila ehuneko 76koa izan da, baina ehuneko hori 94ra igotzen da baldin eta ez bada kontuan hartzen diruzaintza-gerakina-ekin finantzaturiko aldaketa–.

Gastu arruntek –10,5 milioi euro– gastu osoaren ehuneko 57 egiten dute, eta diru-sarrerara arrun-

tek –12,6 milioi euro–, berriz, likidatutako eskubide guztien ehuneko 65. 2008ko ekitaldiarekin alderatuta, gastuek ehuneko 1 egin dute behera, eta diru-sarrerek, berriz, ehuneko 5.

Kapital gastuek –inbertsioak, funtsean– 8 milioi euro egiten dute, eta ehuneko 38 jaitsi dira 2008arekin alderatuta. Kapital diru-sarrerei dagokienez –6,5 milioi euro; alegia, ekitaldian kitaturiko diru-sarrerara guztien ehuneko 35–, ehuneko 49 soilik bete da, batik bat industrialdeko UE-1 unitatearen urbanizazio kuotak deuseztatzearen eraginez –2,3 milioi euro–.

Aurrekontuko emaitza bateratu doitua 1,9 milioi euroko superabita zen (2008an, 1,5 milioi eurokoa).

Aurrezki garbia ere positiboa da –2 milioi euro–, nahiz eta ehuneko 19 jaitsi den 2008an izandakoarekin alderatuta, ekitaldi horretan lortu baitzen 2006tik 2009ra bitarteko aurrezki garbi handiena:

	2.009	2.008	2.007	2.006
AURREZKI GARBIA	1.963.322	2.420.248	1.566.424	1.285.589
Diru-sarrerara arrunten gaineko aurrezki garbia, ehunekotan	% 15,53	% 18,28	% 14,00	% 11,78

Finantza-zama bateratua 314.344 eurokoa zen 2009ko abenduaren 31n (2008an, 242.499 eurokoa). Zorpetze-mailak 2009ko diru-sarrerara arrunten ehuneko 2,49 egiten du (2008an, ehuneko 1,83), eta zorpetze-mugak, berriz, ehuneko 18,01 (2008an, ehuneko 20,11).

Diruzaintza-gerakin bateratua ehuneko 3 igo da 2008ko ekitaldian izandakoaren aldean, eta 4,6 milioi euro egiten du; horietarik 1,4 milioi euro gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinari dagozkio (2008an, 0,5 milioi euro).

Epe luzeko zorra, 2009ko abenduaren 31n, 7 milioi eurokoa zen (2008ko abenduaren 31n 7,2 milioi eurokoa zen).

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN COMPTOS GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honen aurreko txostenari dagokionez, zeina 2008ko ekitaldiari buruzkoa baita eta 2010eko ekainean argitaratu baitzen, honako gomendio hauek bete dira edo ezartzeko bidean daude:

- *Lanpostu bakoitzari egiazki esleitutako osagarriak jasotzea plantilla organikoan.*

- *Larrialdiko espedientea erabiltzea soilik Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legean aurreikusitako kasuetan, hartan exijitzen den justifikazioarekin.*

- *Lizarrako S-5 sektoreko UE-1 urbanizazio-lanei eta "Miguel de Eguía" zentro teknologikoa eraikitzeke lanei dagokienez, behar diren jarduketak egitea, konponbidea emateko izandako arazo-*ei, birzaratze-proiektua erregistroan jasotzearekin eta jabe bakoitzari dagozkion urbanizazio-kuotak kobratzearekin lotutakoei**

- *1998an interes artistikoko obretarako atxikipen gisa kobratutako funtsak zertan erabili zehaztea.*

Oro har, bete gabe jarraitzen dute aurreko txostenetako administrazio eta kontabilitate arloko zenbait gomendiok. Ondokoek, besteak beste:

- *Udal inbentarioa eguneratu behar da.*

- *Behin betiko onartzea aurrekontu orokorra, kasuan kasuko ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.*

- *Udal ondasunen inbentario orokorrean adierazi eta zehaztea udalaren lurzoru-ondarekoak direnak, eta lurzoruaren udal ondarearen erregistroa sortzea.*

V. KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA**V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA**

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebehargarbiak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketen %	Ordaintzeko dagoena
1 Langileria-gastuak	6.549.875	6.309.461	6.008.245	95	5.943.166	99	65.079
2 Ondasunak eta zerbitzuak erostea	3.906.656	3.907.227	3.695.712	94	2.946.271	80	749.441
3 Finantza-gastuak	315.901	162.217	162.217	100	162.217	100	-
4 Transferentzia arruntak	880.386	702.701	661.907	94	505.080	76	156.827
6 Inbertsio errealak	7.303.768	14.286.553	7.814.311	55	6.928.362	89	885.949
7 Kapital-transferentziak	-	-	-	-	-	-	-
8 Aktibo finantzarioen aldaketa	-	-	-	-	-	-	-
9 Pasibo finantzarioen aldaketa	142.912	152.127	152.127	100	152.127	100	-
Gastuak, guztira	19.099.498	25.520.286	18.494.519	72	16.637.223	90	1.857.296

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sareren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobrantsak (%)	Kobrantszeko
1 Zuzeneko zergak	3.712.016	3.712.016	3.781.478	102	3.433.508	91	347.970
2 Zeharkako zergak	250.000	250.000	461.378	184	408.969	88	52.409
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.211.835	1.212.106	1.904.701	157	1.143.406	60	761.295
4 Transferentzia arruntak	5.935.560	5.799.887	5.921.669	102	5.637.017	95	284.652
5 Ondarearen diru-sarrerak	719.327	719.327	574.304	80	554.263	96	20.041
6 Inbertsio errealen besterentzea	882.545	2.764.901	1.944.115	70	1.943.115	99	1.000
7 Kapital-transferentziak	6.388.215	6.560.202	4.828.690	74	2.991.469	62	1.837.221
8 Aktibo finantzarioak	-	4.501.847	-	-	-	-	-
9 Pasibo finantzarioak	-	-	-	-	-	-	-
Dirusarrerak, guztira	19.099.498	25.520.286	19.416.335	76	16.111.747	83	3.304.588

V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
+ Aitorturiko eskubide garbiak	19.416.335	18.652.526
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	-18.494.519	-23.724.845
= Aurrekontu-emaiza	921.816	-5.072.319
DOITZEAK		
- Finantzaketaren desbideraketa positiboa	-1.591.452	-3.575.295
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboa	1.698.871	6.028.505
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	727.180	4.166.256
= Aurrekontu-emaiza doitua	1.756.415	1.547.147

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
+ KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	3.487.224	4.739.839
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	3.328.618	3.594.749
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	2.027.532	2.032.619
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	24.711	494.401
(-) Diru-bilketa zaileko eskubideak	-1.893.637	-1.381.930
- ORDAINTZEKE DAUDEN BETEBEHARRAK	2.734.900	5.919.150
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.881.327	5.272.787
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	185.181	17.330
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	668.392	629.033
+ DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK	1.191.736	3.080.269
+ Finantzaketa-desbideraketa metatu negatiboak	2.687.244	2.576.639
= DIRUZAINZTA-GERAKINA, GUZTIRA	4.631.304	4.477.597
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	2.746.928	3.321.853
Baliabide atxikiaren diruzaintza-gerakina	529.552	685.611
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.354.824	470.133

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

AKTIBOA

	Deskribapena	2009	2008
A	IBILGETUA	70.106.123	69.938.179
B	ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK		
C	ZIRKULATZAILEA	4.876.520	8.060.399
7	Izakinak		
8	Zordunak	3.562.038	4.821.972
9	Kontu finantzarioak	1.254.982	3.152.719
10	Aktiboaren beste kontu batzuk	59.500	85.708
11	Aplikatzeke dagoen emaitza (ekitaldiko galera)		
	AKTIBOA, GUZTIRA	74.982.643	77.998.578

PASIBOA

	Deskribapena	2009	2008
A	FUNTS BEREKIAK	65.092.821	64.729.178
1	Ondarea eta erreserbak	43.106.084	41.087.467
2	Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-3.410.380	2.091.027
3	Kapitaleko diru-laguntzak	25.397.117	21.550.684
B	ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK		
4	Hornidurak		
C	EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	7.016.627	7.168.754
4	Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	7.016.627	7.168.754
D	EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	2.873.195	6.100.646
5	Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	2.778.148	5.969.203
6	Aplikatzeke dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	32.271	33.254
7	Formalizazioa		663
8	Pasiboaren beste kontu batzuk	62.776	97.526
	PASIBOA, GUZTIRA	74.982.643	77.998.578

V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	ZENBATE-KOA 2009an	ZENBATE-KOA 2008an	Deskribapena	ZENBATE-KOA 2009an	ZENBATE-KOA 2008an
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukarako izakinak	0	0
39 Izakinen prezio-beherapenaren ondoriozko hornidura (ekitaldiko hornidura)	0	0	39 Izakinen prezio-beherapenaren ondoriozko hornidura (ekitaldiko hornidura)	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	636.532	934.547
61 Langileria-gastuak	6.007.786	5.854.120	71 Jabetzaren eta enpresaren errenta	1.267.478	980.314
62 Finantza-gastuak	161.170	106.846	72 Produktzioari eta inportazioari loturiko tributuak	3.020.804	4.283.940
63 Tributuak	0	138	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	711.068	690.984
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	3.698.655	3.836.000	75 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0
65 Gizarte prestazioak	9.872	11.969	76 Transferentzia arruntak	5.921.668	5688.376
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	510.985	594.791
67 Transferentzia arruntak	643.478	811.891	78 Bestelako diru-sarrerak	1.558.045	67.998
68 Kapital-transferentziak	7.004	7.004	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornidurak	0	0
69 Amortizazio eta horniduretarako hornidurak, ekitaldikoak	1.905.432	1.102.591			
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.193.183	1.510.391	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
GUZTIRA	13.626.580	13.240.950	GUZTIRA	13.626.580	13.240.950

Ekitaldiko emaitzak

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	ZENBATE-KOA 2009an	ZENBATE-KOA 2008an	DESKRIBAPENA	ZENBATE-KOA 2009an	ZENBATE-KOA 2008an
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.193.183	1.510.391
82 Ezohiko emaitza (saldo zorduna)	4.236.116	0	82 Ezohiko emaitza (saldo hartzekoduna)	0	697.471
83 Balore-karteraren emaitza (saldo zorduna)	0	116.835	83 Balore-karteraren emaitza (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	367.447	0	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	0	2.091.027	89 Etekin garbia, guztira (saldo zorduna)	3.410.380	0
GUZTIRA	4.603.563	2.207.862	GUZTIRA	4.603.563	2.207.862

VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrienen araberako sailkaturik, Ganberaren iritziz udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio nagusiak emanen ditugu..

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2009rako aurrekontua onetsi gabe zegoenez, 2008rako aurrekontua eta aurrekontua betetzeko oinarriak luzatu ziren 2008ko abenduaren 31n (kasuan kasuko egokitzapenekin, 11.502.595,41

eurokoa izatera heldu zen). Luzaturiko aurrekontu honetan erregistratu ziren Toki-inbertsioen Estatu-funtsari atxikitako inbertsioak (2.465.624 euro, BEZa barne).

2009ko ekitaldirako aurrekontua ez zen indarrean sartu 2009ko uztailaren 24ra arte, behin betikoz onetsi izana Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu arte. Udalerako gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspena 18.662.151 eurokoa zen, eta "Julián Romano" musika patronaturakoa, berriz, 437.347 eurokoa.

Ondoren, 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren zenbait magnitude azaltzen ditugu, bai eta haien eeta 2008koen arteko alderaketa ere:

	2009	2008	Ald. 09/08
Aitorturiko betebeharrak	18.494.519	23.536.104	% -21
Likidaturiko eskubideak	19.416.335	18.463.784	% 5
Gastu arruntak (1etik 4ra)	10.528.081	10.685.927	% -1
Kapital gastuak (6tik 9ra)	7.966.438	12.850.177	% -38
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	12.643.530	13.242.050	% -5
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	6.772.805	5.221.734	% 30
Aurrekontu-erama	-921.816	5.072.320	
Aurrekontu-erama doitu	1.756.415	1.547.147	
Aurrezki gordina	2.277.666	2.662.747	% -14
Finantza-karga	314.344	242.499	% 30
Aurrezpen garbia	1.963.322	2.420.248	% -19
Zorpetze-mailaren %	% 2,49	% 1,83	
Zorpetze-mugaren %	% 18,01	% 20,11	
Zorpetze-ahalmenaren %	% 15,53	% 18,28	
Diruzaintza-gerakina, guztira	4.631.304	4.477.597	% 3
Gerakina, baliabide atxikiak sortua	3.276.480	4.007.464	% -18
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	1.354.824	470.133	% 188

Gastu guztiak hartuta, inbertsioek ehuneko 42 egiten dute, langileen kapituluak ehuneko 32 eta ondasun eta zerbitzuak erosteagatik gastuek ehuneko 20.

Bestalde, sei zerbitzuek⁽¹⁾ udalaren gastu arruntak ehuneko 44 kontsumitzen dute: Sustapena eta gizarteratzea, ehuneko 9; Segurtasuna eta polizia, ehuneko 9; Kultura, ehuneko 8; Kaleen garbiketa, ehuneko 6; Oinarriko Gizarte Zerbitzua, ehuneko 6; eta Kirolak, ehuneko 6.

Diru-sarrerari dagokienez, ehuneko 31 tributu bidezko diru-sarreretatik heldu dira, ehuneko 30

transferentzia arruntetatik, eta ehuneko 25 kapital-transferentzietatik.

Kontu orokorra 2010eko urriaren 20an onetsi zen, legez ezarritako epetik kanpo. Halaber, ez da bete hura kontuen batzorde berezira igortzeko ezarrita dagoen epea.

Oroitidazkiak ez du informaziorik jasotzen hiri-gintzako jarduketari buruz, eta kontu orokorrekiko zenbait alde ditu, zenbateko oso txikiarengatik bada ere.

(1) Toki entitateek herritarrei ematen dizkieten zerbitzu nagusien kostuak kalkulatzeko Toki Administrazioako Departamentuak garaturiko aplikazio informatikotik eskuratutako datuen arabera.

Diruzaintzako egoera-orriak ez du jasotzen saldoen berdinkatze-agiria.

Aurrekontuz kanpoko hartzekodunen kontuan udalak 23.0809 euroko zenbatekoa jaso du, interes artistikoa duten obren kontzeptuan; zenbateko horrek zerikusia du 1998. urtean egindako udal-obra baten esleipen-hartzaileari udalak inbertsio artistikoetarako kobratu zion atxikipenarekin. Funts horiek 2010eko ekitaldian aplikatu dira, Lizarrako harresi zaharrak berreraikitze obren kariatara.

Azkenik, entitatearen barne kontrola hobetzearen, eta zenbait espedientetako dokumentazioan gabezia batzuk detektatu direnez, gure iritziz ego-kia izanen litzateke horren kudeaketa eta kontrola errazteko prozedurak ezartzea.

Hona gure gomendioak:

- *Kasuko ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen prestatzea eta behin betikoz onestea aurrekontu orokorra, kudeaketarako oinarrizko lanabesa izan dadin.*

- *Ekitaldiko kontu orokorra osatzeko, aurkezteko eta onesteko legezko epeak betetzea.*

- *Oroitidazkian jasotzea urteko kontuak errazago ulertzeko beharrezkoa den informazio guztia; besteak beste, hirigintza-jarduketei buruzko datuak.*

- *Kontu korranteetako saldoen berdinkatze-akta eranstea diruzaintzako egoera-orriari.*

- *Udal koordinazioko tresnak indartzea, halako moduan non arduradunak identifikatu eta esleitu-ko baitira, udalaren aurrekontuan eta egoera finantzarioan eragina izan dezaketen jarduketa guztietarako.*

- *Espedienteetako dokumentazioa kudeatzeko, kontrolatzeko eta artxibatze-ko prozedura eraginkorrak ezartzea.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastu bateratuak 6.008.145 euro egiten du; 5.673.771 euro udalari dagozkio, eta 334.474 euro, berriz, "Julian Romano" musika patronatuari.

Gastuen aurrekontuko kapitulu horrek 2009an sorrarazitako gastu osoaren ehuneko 32 egiten du,, eta gastu arrunten ehuneko 57. 2008ko ekitaldiarekin alderatuta, igoera ehuneko 3koa izan da.

Osoko Bilkurak 2009ko maiatzaren 15ean onetsi zuen hasiera batez udalaren eta "Julian Romano" musika patronatuaren plantilla organikoa. Behin betiko onespena 2009ko abuztuaren 17an argitaratu zen. Hona:

Entitatea	Lanpostuak, guztira	Lanpostu hutsak
Udala	96	27
"Julián Romano" Musika Patronatua	15	7
Guztira	111	34

Datu horietatik ondorioztatzen da lanpostu hutsen kopurua ehuneko 31 inguru dela (ehuneko 28, udalean; eeta ehuneko 47, berriz, musika patronatuan).

Plantillaren garapenari dagokionez, lanpostu kopurua (111) ez da aldatu 2008ko ekitaldiko plantilla organikoarekin alderatuz gero.

Gastu horien lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ordainsariak, oro har, betetako lanposturako erabakitakoak direla, egindako atxikipenak zuzenak direla, eta langileria-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela.

Hona gure gomendioak:

- *Plantilla organikoa udalaren langileria-premiarekin bat datorren ala ez aztertzea komeni da.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetako betebeharrak aitortu bateratuek (3.695.712) ekitaldiko gastu osoaren ehuneko 20 egiten dute, eta eragiketa arruntetako gastuen ehuneko 35. 2008. urtearen aldean, ehuneko 4 jaitsi dira.

Kapitulu horretako gastu bateraturik, 3.641.982 euro udalari dagozkio, eta 77.760 euro, berriz, "Julián Romano" musika patronatuari.

2009an esleitutako honako kontratazio-espeditante hau aztertu da:

	Kontratu-mota	Prozedura	Urteko likidazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Urteko esleipenaren zenbatekoa (BEZik gabe)
Premiamendu bidean diren zorren kobrantza kudeatzeko zerbitzua	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	208.000	% 86, errekaratu eta interesak direla-eta kobratutakoaren gainean

Azterketa horretatik eta kapitulu honetako gastuen laginetik egiaztatu da kasuko fakturen bidez justifikaturik daudela eta behar bezala kontabilizatu direla. Aldizkako gastuen kasuan egiaztatu da badirela indarrean diren kontratazio espeditanteak. Halere, hobetu beharreko honako puntu hauek detektatu dira:

- Kontratu jakin batzuetan (aseguruak, trafiko arloko zehapenen etea salaketen kudeaketa) gaitur egiten da araudiak ezarritako gehieneko indarraldia.

- Laguntza nahiz aholkularitza teknikoaren zerbitzuak emateko gastu batzuek, errepikariak badira ere, halako bolumena egin dute non zenbatekoaren araberrako kontratazio prozedura bat izapidetu beharko bailitzateke.

- Musika patronatuak kapitulu honetan kontabilizatzen du atezain-lanpostuari dagokion gastua; atezaina udalekoa da, baina musika-eskolan lan egiten du.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratazio prozedura egokia aplikatzea, kontratuaren izaeraren eta zenbatekoaren araberrara.*

- *Kontratazio espeditanteen indarraldiaren gaineko kontrola areagotzea etea garaiz planifikatzea kasuko lizitazio prozeduraren hasiera.*

- *Udalaren transferentzia arrunt gisa kontabilizatzea musika patronatuan lan egiten duen udal atezainaren gastua.*

VI.4. INBERTSIOAK

2009rako inbertsioen kapituluko aurrekontu bateratuak 14.286.553 euro egiten du, eta hor sartzen dira Toki-inbertsioen Estatu-funtsak finantzatutako obrak (2.465.624 euro) eta 2008tik gehitutako kreditu-gerakinak (6.246.989 euro).

Inbertsioek (7.814.311 euro, zeinetatik 3.990 musika patronatuarenak baitira eta gainontzekoa udalarena) ekitaldiko gastu guztien ehuneko 42 egiten dute, eta kapital-eragiketen gastuen gaineko ehuneko 98. Betetze-maila ehuneko 55koa izan da, eta 2008an egindako inbertsioekin alderatuta, ehuneko 39 jaitsi da.

Hona 2009an gastu-bolumen handiena izan duten proiektuak:

	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Betetzearen %
San Pedro auzoko igogailua	722.851	715.177	% 99
Zaldu urbanizazioa	1.057.578	656.941	% 62
Toki-inbertsioen Estatu-funtseko inbertsioak	2.606.579	2.587.437	% 99
Industrialdea	1.212.827	536.650	% 44
Parke teknologikoa	2.374.107	777.501	% 33
Zehaztutako obrak, guztira	7.973.942	5.273.706	% 66

Ondoko inbertsioen betetze maila, aitzitik, ehuneko 1ekoa izan da soilik (inbertsioek 3 milioi euroko aurrekontua zuten guztira):

	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Betetzearen %
AR 3 (zerbitzuen nabea) urbanizazioa	1.767.295	25.372	% 1
10.1 exekuzio unitatea urbanizatzea	644.277	-	-
Tailer-eskolaren nabea	600.000	-	-
Zehaztutako obrak, guztira	3.011.572	28.207	% 1

kapitulu honetako gastuen lagin bat aztertu da; horien artean, besteak beste, 2009ko ekitaldian eginiko honako esleipenak sartu dira:

	Kontratu mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipenaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Exekuzio epea
"Miguel de Eguía" zentro teknologikoko obrak bukatzea	Obrak	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	1.645.697	1.645.532	3 hilabete eta erdi
"Miguel de Eguía" zentro teknologikorako laborategiko altzari teknikoak	Hornidura	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	65.000	65.000	2009-12-30a baino lehen
Lizarra Auzoko igogailuak (Toki-inbertsioen Estatu-funtsa)	Obra	Negoziatua, publizitatearekin	340.915	340.914	6 hilabete

Lagin osoa aztertuta egiaztatu da, oro har, kontratuei buruzko legedia betetzen dela kontratazio espedienteak izapidetzean, esleitzean eta betetzean, baina badira hobetu daitezkeen zenbait alderdi ere, hala nola:

- "Miguel de Eguía" komunikazio grafiko eta ikusizkoaren zentro teknologikoko obrak bukatzea:

Lizarrako Udalak eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten 2006an, "Miguel de Eguía" zentro teknologikoa sortu eta abian jartzeko. Ministerioarekin sinatutako hitzarmenen bidez milioi bat euro lortu zuten 2006an, 3 milioi euro 2007an eta 2 milioi euro 2008an.

Udalak konpromisoa hartu zuen lursail egokiak eta behar adinakoak laga eta urbanizatzeko, aipatutako zentroa egin ahal izateko.

Lizarrako S-5 sektoreko UE-1 unitatean "Miguel de Eguía" zentro teknologikoa eraikitzeo obrak 2008ko maiatzaren 31n, 3.427.351 euroan (BEZik gabe).

Obrak egin behar zituen enpresak bertan behera utzi zituen obrak 2009ko maiatzaren 31n, kontratua suntsiarazi zuen.

2009ko azaroaren 16an, hura bukatzeko behar ziren lanak esleitu ziren, 1.645.532 euroan (BEZik gabe) eta hiru hilabete eta erdiko egite-epearekin, 2009ko azaroaren 27tik hasita. Obraren amaierako ziurtagiria 2010eko apirilaren 15ean onetsi zen.

2008ko ekitaldiari buruz egin genuen txostenak, zeinean batera aztertu baitziren zentro teknologikoko obrak eta UE-1 unitatea urbanizatzeko proiektuak, agerian utzi zuen 2009an muntako gertakariak izan zirela, UE-1 unitateko lurzatiak jabeak igorritako urbanizazio kuotak ez zirelako ordaindu eta jabetza-erregistratzaileak uko egin ziolako exekuzio unitate hori birzatzeko proiektua inskribatzeari.

Inskribatze horri dagokionez esa beharra dago 2010eko azaroan inskribatu dela Jabetzaren Erregistroan, Lizarrako HAPOko S-5 sektoreko UE-1 unitatea birzatzeko proiektuaren aldaketa behin betikoz onetsi ondoren (onespena 2010eko urriaren 15ean argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean). Udalak adierazi digunez, errekurso bat aurkeztu da behin betiko onespene horren aurka, eta inskribatzea bertan behera uztea eskatu da.

- "Miguel de Eguía" komunikazio grafiko eta ikusizkoaren zentro teknologikorako altzari teknikoaren hornitzea:

Kontratua 2009ko abenduaren 23an esleitu zen, 65.000 euroan (BEZik gabe). Esleipenaren akordioan 2009ko abenduaren 31ra bitarteko exekuzio-epea ezarri zen, Berrikuntzaren eta Informazioaren Gizarterako Zerbitzuko zuzendaria abenduaren 4ko 3754/2008 Ebazpenean ezarritako epeak betetze aldera (ebazpen horren bidez 100.000 euroko diru-laguntza eman zen obra horretarako).

Egun hori baino lehenago dago onetsita eta kontabilizatuta enpresa esleipen-hartzaileak egindako faktura. Halere, kontratuaren nahiz behin betiko bermearien formalizazioa ez zen egin 2010eko otsailera eta martxora arte, hurrenez hurren.

- Zalatorria eta San Nicolás kaleen artean igogailu bat paratzeko eta eskailera berreraikitzeo obrak:

Kontratua, Europar Batasunean publikitateko gabeko prozeduraren bidez izapidetua, 2008ko azaroaren 6an esleitu zen, 536.515 euroan (BEZik gabe).

Tokiko Gobernu Batzarrak aldaketa bat onetsi zuen 2009ko maiatzaren 8an, obraren zuzendaritza fakultatiboak proposatuta, ezpona bat egonkortze aldera (136.237 euro, BEZik gabe). Espedientean ez da aipaturiko txostena jasota ageri.

Enpresa eraikitzaileak obra egiteko epearen bi luzapen eskatu zituen, eta Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi egin zituen, obraren amaiera 2009ko urriaren 9ra arte atzeratu zen. Ezin izan da egiaztatu epe berri hori bete den ala ez, espedientean ez baita erantsi obra jasotzeko akta.

- Merkatondoko futbol zelaiaren aldaketak egitea:

Lizitazio aurrekontua 877.069 eurokoa zen (BEZik gabe), eta 680.167 euroan (BEZik gabe) esleitu zen 2008ko abenduaren 29an, zazpi hilabeteko exekuzio epearekin. zuzendaritza teknikoak txostena egin zuen 2009ko abenduaren 28an, atzerapenaren ardura kontratu-hartzailearena ez dela adieraziz.

2009ko abenduaren 11ko Osoko Bilkurak hasiera batez onetsi zuen 6. zenbakiko aurrekontu aldaketa, 182.745,77 eurokoa, xede zuena kreditu-transferentziak egitea aurrekontuan jaso gabeko gastuak finantzatzeko; besteak beste, obra horretako 7. eta azken ziurtagiria.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko abenduaren 23an egindako bilkuran, ziurtagiri hori onetsi zuen 72.710 euroan (BEZik gabe), zeinak proiektuan ageri ez diren unitate berriak jasotzen baititu, esleipenaren ehuneko 10,42 egiten dutenak.

Aurrekontuan hasieran jaso ez izanak, beste esleipen batzuetan ere gertatu zena, kontu-hartzailearen eragozpen-ohar bat egin zuen, zeinaren agerian uzten baitzen "obra horiek teknikoki egiaztatu eta ziurtatu direla, eta gertatu dena da, obra zuzendaritzaren eta kontratu-hartzailearen arabera, udalak hala eskatuta egin direla esleipenaren gaineko obra unitate gehiago."

- Espediente batzuetan ezin izan dugu egiaztatu baldintzak bete izana, hala nola administrazio-baldintza orrietan ezarritako dokumentazioa aurkezteko epea, ez baita jasota ageri sarrera-erregistrarik udalean.

Azkenik, gure iritziz, kontratazio arloko garden-tasuna eta kontrola ezartze aldera, espedienteak

kudeatzeko prozedurak ezartzea komeni da, ukitu-tako alde guztiek jarduketan koordinazio maila hobetearren, kontratuei buruzko legedian ezarr-itakoaren arabera formalizatuz jarduketa horiek, eta hori guztia espedientean jasota utziz.

Hona gure gomendioak:

- *Kontu-hartzaitzaren menpe jarri behar da betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen egintza oro.*

- *Kontratazioaren araudia aplikatu behar da esleipen-prozedurarekin lotutako alderdi guztietan.*

- *Kontratazio prozedurarekin lotutako dokumentazioa erregistratzea, halako moduz non jasota geratuko baita ezarritako epeen betetzea.*

VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2009ko ekitaldian aitorturiko eskubide bateratuek 19.416.335 euro egiten dute; 196.042 "Julián Romano" musika patronatutik heldu dira, bateratzearen doitzak deskontatu ostean.

Diru-sarreraren ehuneko 92 gauzatu egin dira, baldin eta ez badugu kontuan hartzen diruzaintza-gerakinaren bidezko finantzaketa aurreikusia.

Betetze-maila handiagoa lortu ez bada izan da ez direlako bete hirigintza-aprobetxamenduetako diru-sarreraren aurreikuspenak.

Horri dagokionez adierazi behar da ezen Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko ekainaren 18ko erabaki bidez onetsi zela UE-1 exekuzio-unitatea birzaitzeko proiektuaren lehendabiziko urbanizazio-kuota. Jabeek ez zituztenez ordaindu bidali zitzaizkien kuotak (2,6 milioi euro) –aurreikusitako hitzarmena sinatu gabe zegoela alegatu zuten–, aurrekontuko erregistroa baliogabetu zen, organo eskudunak onetsi gabe. 2010eko irailaren 9an behin-behineko likidazio-kontuaren aldaketa onetsi zen.

Diru-sarrera arrunten kapitulu guztiek gainditu dute ehuneko 110eko betetze-maila; horien artean nabarmentzen da "Tasak eta bestelako diru-sarrerak" izenekoak, zeinean erregistratu baita zentro teknologikoaren enpresa eraikitzaileari eskatutako kalte-ordaina (490.944 euro). Eskubide horiek kobratzen zail gisa sartuta daude diruzaintza-gerakinean.

2008ko ekitaldiarekin alderatuta, aitorturiko eskubide bateratuak ehuneko 5 igo dira. Hona, kapituluz kapitulu:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitorturiko eskubide garbiak, 2009	Aitorturiko eskubide garbiak, 2008	2009/2008 aldea, ehunekotan
1 zuzeneko zergak	3.781.478	3.690.556	% 2
2 Zeharkako zergak	461.378	1.879.159	% -75
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.904.701	1.671.159	% 14
4 Transferentzia arruntak	5.921.669	5.747.332	% 3
5 Ondare diru-sarrerak	574.304	253.844	% 126
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	12.643.530	13.242.050	% -5
6 Inbertsio errealen besterentzea	1.944.115	685.611	% 184
7 Kapital transferentziak	4.828.690	4.536.123	% 6
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	6.772.805	5.221.734	% 30
Diru-sarrerak, guztira	19.416.335	18.463.784	% 5

Diru-sarrera arruntak ehuneko 5 jaitsi izanaren eta kapitaleko diru-sarrerak ehuneko 30 igo izanaren arrazoia da, funtsean, diru-sarrera arruntei dagokienez, gutxiago bildu izana eraikinen eta obren gaineko zergaren bidez, eta kapitaleko diru-sarrerei dagokienez, berriz, lurra saldu izana.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren egiaztatu dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har.

Hona gure gomendioak:

- *Ordenantzak eta prezio publikoak onetsi eta argitaratu behar dira horiek aplikatzeko epea hasi aurretik.*

VI.6. IBILGETUA ETA INBENTARIOA

Udalaren ondasunen inbentarioa, 1995ekoa baita, ez da eguneratu, eta ez daude jasota udalaren ondasun guztiak. Halere, 2003tik aitzina, udalak badu, gastuak kalkulatzearren, udal zerbitzuetara atxikitako ondasunen zerrenda bat.

Ondasunen altak aipatu zerrendan jasotzen dira, eta ez 1995ean egindako inbentarioan. Ez dago loturarik kontabilitatearen eta inbentarioaren artean.

Amortizazioak zerrenda horretan jasotako ondasunen gainean kalkulatu dira. 2009an kontabilizatu dira, aparteko emaitzen kargura, aurreko ekitaldietako amortizazioak.

Kontabilitatearen ikuspegitik, tokiko erabilera publikoko ondasunak, behin bukatu ondoren, ez dira aldatzen erabilera orokorrari emandako ondare-kontura.

Hona gure gomendioak:

- *Udal ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua egitea eta onestea.*
- *Inbentarioaren eta ibilgetuaren arteko lotura ezartzea.*
- *Udal ondasunak (jabari publikoak, ondarekoak eta herri ondasunak) eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*
- *Ibilgetutik kentzea azpiegituretan eta erabilera orokorrerako ondasunetan egindako inbertsioak, behin haiek egin ondoren.*

VI.7. GORABEHERAK

Udala zenbait prozedura judizialean sarturik dago; horietako hiru hirigintza arlokoak dira, eta une honetan ezin da modu objektibo batez zehatu

horien azken emaitzatik pasibo adierazgarririk sortuko ote den udalarentzat.

VI.8. HIRIGINTZA

1995eko abenduan onetsi zen Lizarrako Udalaren Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– planeamendu indardunak homologatzeko eta egokitzeko.

2007ko maiatzaren 3an hasiera batez onetsi zen udalaren Plan Orokorra. Planaren Jarraipen Batzordeak jasotako alegazioei buruzko txosten teknikoa 2008ko martxoan aurkeztu zen.

Udalak, 2009ko maiatzaren 7an egindako Osoko Bilkuran, jasotako alegazioak hein batean onartzea erabaki zuen, bai eta udaleko talde politikoek egindako zenbait proposamen ofizioz sartzea ere.

Egindako aldaketek 2007an hasiera batez onetsitako udalaren Plan Orokorreko egitura organikoaren funtsezko aldaketa zekartela iritzita, udalak 2009ko abenduaren 11n egindako Osoko Bilkuran onetsi zuen espedientearen jendaurrean berriz jartzeari. Beni-behineko espedientearen aurka errekurtsioa aurkeztu zen Nafarroako Administrazio Auzitegian, zeinak arrazoia eman baitzuen, formazko akats bat zela medio, errekurtsioa aurkeztu zutenei. 2011ko otsailean, espedientearen jendaurreko epea betetzen ari da.

Udalak ez dauka hirigintza-hitzarmenen artxiborik eta erregistrorik.

Udalak ez du kudeatzen bere lurzoru-ondarea erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori loteslea eta bereizia izatea, eta era berean, ez da sortu erregistroa.

Ondasun higiezinaren trukatzeari buruz udalak egin duen kontabilitate-erregistroa ez da egokia, ez baitu islatzen ez jasotako ondasunaren ondare-alta ez emandakoaren baja.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzeari.*
- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa eta artxiboa ezartzea, indarrean dagoen legediak eskatzen duen dokumentazioa duela.*

• Arloak eta udalaren zerbitzu teknikoek barne-kontrol handiagoa egin behar dute hirigintza-jarduketei buruzko espedienteen kudeaketaren gainean.

• Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa eta inbentarioa eratzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizkita kudeatu behar dela, hirigintzari buruzko legedian jasotako helburuei lotuta dagoelako, izaeraz.

VI.9. "ENTIDAD PARA LA GESTIÓN DEL DESARROLLO MUNICIPAL Y SOCIOECONÓMICO DE ESTELLA-LIZARRA, S.A." UDAL SOZIE-TATEA.

"Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarra, S.A." persona bakarreko sozietate bat da, zeinaren akzio-dun bakarra Lizarrako Udala baita. 2006an eratu zen, 60.500 euroko kapitalarekin.

2010eko irailaren 30ean onetsi ziren egoera-balantzea, galeren eta irabazien kontua, oroitidazki laburtua eta 2009ko abenduaren 31ko ondare garbian eginiko aldeketen egoera-orria.

Udal sozietate honen 2009ko abenduaren 31ko egoeraren balantzeak honako saldoak agertzen ditu:

AKTIBOA	2009	PASIBOA	2009
Aktibo korrontea		Funts berekiak	
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	143	Kapitala	60.500
Epe laburreko inbertsio finantzarioak	59.500	Erreserbak	(498)
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	459	Ekitaldiko emaitza	(138)
		Pasibo korrontea	
		Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	238
Aktiboa, guztira	60.102	Pasiboa, guztira	60.102

Hona gure gomendioak:

• Udalaren sozietatearen jarduera-eza ikusita, entitatearen existentzia bera berraztertzea.

Txosten hau indarrean den araudian xedatutako izapide guztiak egin ondoren eman da.

Iruñean, 2011ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

